D. C'est fâcheux pour vous ; mais c'est impossible ; pour cette fois vous devrez frapper ailleurs.	Zuretzat lastimagarri da ; bainan, ez daite ; aldì huntaco bertcetan yo beharco duzu.
R. et D. Veuillez me dire où je pourrais en trouver.	Erran diezadazut non khausi dezakedan.
R. Il y a ici dans le voisinage un riche banquier ; peut-être lui ?...	Bada hemen auzoan dirudun aberats bat ; beharbada harec ?...
D. Où demeure-t-il ?	Non dago ?
R. A la deuxième porte en descendant ; allez-y de ma part.	Bigarren athean, yaistean, zohaz nere phartez.
D. Pardon, monsieur.	Barkhatu, yauna.
R. et D. Il n'y a pas de	Ez da ceren. Iguric-

quoi. Attendez ; je vais vous ouvrir la porte.	azu ; athea idekico dautzut.
R. Ne vous dérangez pas à cause de moi.	Ez zaitecela neregatic desarrima.
D. C'est le moins que je puisse faire.	Gutienic eguin dezazuketena da hori.
R. J'ai bien l'honneur, monsieur, de vous saluer.	Agur, yauna, ohore handirekin.
D. Bonne chance.	Guerthacari on.
R. Ainsi soit-il.	Aguian bai.

—

24me Dialogue. — XXIV Bitarteco Solasa.

Pour faire faire quelque démarche. — *Cerbait urhats eguinarazteco.*

—

D. Monsieur, madame, je viens vous faire une prière.	Yauna, — andrea, othoitz baten eguitera heldu nautzu.
R. et D. Qu'est-ce ?	Cer da ?
R. Pour une faveur.	Fagore batentzat
D Laquelle ?	Zoin ?
R. Je voudrais.	Nahi nuke.
D. Quoi ?	Cer ?
R. Que vous fassiez une démarche pour moi.	Neretzat urhats bat eguin bacineza.
D. Auprès de qui ?	Noren gana ?
R. Auprès de monsieur le maire, — de monsieur le curé, — du juge de paix.	Yaun auzo-aphezaren, — yaun erretoraren, bakezco yuyearen gana.
D. Oui, je le veux.	Bai, nahi dut.
R. Vous me ferez un grand plaisir.	Atseguin handi bat eguinen dautazu.
D. De quoi s'agit-il ?	Certaz datza ?
R. D'une affaire grave.	Eguiteco phisu batez.
D. D'un mariage, d'un procès ?	Escontza batez, — auci batez.
R. Précisément, c'est cela.	Preseski, hori da.

D. Je ferai tout mon possible pour vous.	Nere ahal guciac zuretzat eguinen ditut.
R. Je vous en prie.	Othoizten zaitut.
D. Laissez cela sur mon compte.	Utz-zazu hori nere gain.
R. Je vous devrai de la reconnaissance.	Ezagutza zor izanen dautzut.
D. Et quand voulez-vous que je fasse votre commission ?	Eta noiz nahi duzu zure mezua eguin dezadan ?
R. Le plus tôt possible.	Ahalic lasterrena.
D. Je la ferai aujourd'hui ou demain.	Egun edo bihar eguinen dut.
R. et D. Pourquoi pas aujourd'hui même, si vous le pouviez ?	Cergatic ez egun berean eguiten, ahal bacindu ?
R. Tout de même aujourd'hui ; rien ne m'en empêche.	Orobat egun berean ; deusec ere ez nau trabatcen.
D. Je viendrai demain chercher la réponse.	Bihar ethorrico naiz errephoztaren bilha.
R. Vous me trouverez chez moi à deux heures.	Bi orenetan nere etchean kausituco nauzu.
D. Votre serviteur, — votre servante.	Zure cerbitzari, — zure nescato.
R. A demain mon cher, — ma chère.	Bihar dino, nere maitea.

—

25me Dialogue.	**XXV Bitartecoo Solasa.**
Pour obtenir un emploi.	*Kargu baten ardiezteco.*
D. Monsieur, — madame, pardonnez-moi si je viens vous interrompre.	Yauna, — andrea, barkha diezadazut zure asaldatcera yiten banaiz.
R. et D. En quoi puis-je vous être agréable ?	Certan agrada citzaket ?
R. Il y a quelques jours que je suis sans moyens d'existence, sans pouvoir gagner du pain.	Badu cembait egun, bicitceco seguidaric gabe naicela, oguia ecin irabaciz.

D. Que désirez-vous ? Un emploi quelque part, au bureau de... à la garde, à l'octroi ?	Cer guticiatcen duzu ? Kargu bat nombait.. coteguian, guardian, octroan ?
R. Quelque chose n'importe où.	Cerbait non nahi.
D. Je verrai, mais je crains.	Ikhusico dut, bainan beldur naiz.
R. et D. Je vous en prie.	Othoizten zaitut.
R. Il n'y a de vide nulle part.	Nehon ez da hutsic.
D. Promettez-le moi pour quand il y en aura.	Hitz emadazut izanen deneco.
R. Cela ne dépend pas de moi seul.	Ez datza hori ni baithan bakharric.
D. Cependant, si vous le vouliez bien, il me semble que votre voix l'emporterait.	Bizkitartean, nahi bacindu ongui, iduritcen zaut zure boza nauzi litakeiela.
R. Je ferai tout mon possible.	Nere eguin ahal guciac eguinen ditut.
D. Je ne vous en demande pas davantage.	Ez dautzut guehiago galdatcen.
R. Si je le puis, de bon cœur.	Eguin ahal badezaket, bihotz onez.
D. Vous êtes trop bon pour agir autrement.	Oneguia zare bertce guisaz eguiteco.
R. Si ce n'est pas aujourd'hui, ce sera demain.	Egun ez bada, bihar izanen da.
D. Que ce soit le plus tôt possible ; car je suis à battre le pavé et je meurs de faim.	Ahalic lasterrena izan bedi ; ecen, galtzada zapatcen ari naiz eta goseac hila nauca.
R. Soyez bien assuré que je ne vous oublierai pas.	Segur izan zaite ez zaitudala ahantcico.
D. Merci d'avance ; dans cet espoir, je pars content.	Aincineticeskherric aski ; esperantza hortan, bozic banhoa.

R. Comptez sur moi.	Khonda zazu nere gainean.
—	—
26me Dialogue.	**XXVI Bitarteco Solasa.**
Pour demander un avis.	*Abisu baten galdatceco.*
D. Vous voilà ?	Hor zare ?
R. Oui, me voici encore.	Bai, hemen naiz oraino.
D. Avez-vous besoin de quelque chose ?	Cerbaiten beharra baduzu ?
R. Je ne viens pas vous demander de l'argent.	Ez naiz diru galdez yiten.
D. Et quoi donc ?	Eta ceren bada ?
R. et D. Des avis ; écoutez-moi.	Abisuen ; adi nezazu.
R. Avec grand plaisir.	Atseguin handirekin.
D. Que feriez-vous si vous étiez à ma place ?	Cer eguin cinezake nere lekhutan bacinde ?
R. A votre place, voici ce que je ferais.	Zure lekhutan banintz, huna cer eguin nezakeien.
D. Vous croyez ?	Uste duzu ?
R. Si vous m'en croyiez, voilà ce que vous devriez faire.	Sinhesten baninduzu, horra cer eguin behar cindukeien.
D. Et que me dites-vous de telle autre affaire ?	Eta cer erraiten dautazu bertce hunelaco eguitecoaz ?
R. Je ne sais pas trop ; cela n'est pas facile	Ez dakit sobera ; hori ez da errech.
D. Que dois-je donc faire ?	Cer eguin behar dut beraz ?
R. et D. Je ne vois qu'un seul moyen ; c'est... Que dites-vous ?	Ez dut bide bakhar bat baicen ikhusten ; hura da.... Cer diozu ?
R. Je crois que vous avez raison.	Uste dut arrazoin duzula.
D. Telle est mon opinion.	Hori da nere ustea.

R. Je suis tout à fait de votre avis.	Osoki zure abisuco naiz.
D. Et dans telle autre chose, auriez-vous agi comme moi ?	Eta bertce hunelaco gauzan, nic bezala eguinen cinduen ?
R. Pas tout à fait ; vous vous y êtes mal pris.	Ez arras ; gaizki abiatu zare.
D. Quel parti fallait-il prendre ?	Cer escualde hartu behar citakeien ?
R. et D. Attendez ; il me vient une idée ; qu'en dites-vous ? que vous en semble ?	Zaude ; gogorat gauza bat heldu zaut ; cer diozu hortaz ? cer iduritcen zautzu ?
R. Je suis résolu à la suivre.	Deliberatua naiz zure gogoaren arabera eguitera.
D. Vous feriez bien.	Ongui eguin cinezake.
R. J'aurais dû la suivre plus tôt.	Lehenago seguitu behar nukeien.
D. Enfin, de telle autre chose, qu'allons-nous faire ?	Azkenecotz, bertce horrelaco gauzaz ceren eguitera goaci ?
R. Il faut prendre un parti ou un autre.	Escu-alde bat edo bertce hartu behar da.
D. Prenons-nous-y de cette manière ou de cette autre ?	Goacen huntaric edo hartaric.
R. Non ; il faut s'y prendre autrement.	Ez ; bertce moldez ari behar gare.

27me Dialogue.	**XXVII Bitart. Solasa.**
Pour remercier.	*Eskerren emaiteco.*
D. Que venez-vous faire ici, ce panier sous le bras ?	Certarat heldu zare hunat otharre hori galtzarpean ?
R. Je ne viens pas vous apporter grand'chose.	Ez nitzautzu heldu gauza handirekin.
D. Vous avez là quelque chose de bon.	Baduzu hor cerbait onic.

R. Rien qu'une paire de poules, un agneau.	Ez deus oillo pare bat, bildoch bat baiċic.
D. Vous êtes bien bon de vous souvenir ainsi de moi.	Ongui ona zare nitaz horrela orhoitceco.
R. Ne les refusez pas pour si peu ; daignez les agréer et les goûter, de bon appétit, avec votre dame.	Ez ditzazula utz gutieguiz ; agrada bekitzu eta yasta zaitzu, yanbide onean, zure andrearekin.
D. Marie, viens prendre ce panier et ôtes-en le contenu.	Maria, haugui otharre hunen hartcera eta khentzkin barnecoac.
R. J'arrive.	Heldu naiz.
D. Vous prendrez quelque chose, n'est-ce pas ? vous devriez vous rafraîchir ; vous êtes échauffé.	Cerbait hartuco duzu, hala da ? frescatu behar zare, berotua zare.
R. Mille fois merci, je n'ai besoin de rien ; je ne prendrai rien.	Mil esker, ez dut deusen beharric ; ez dut deus hartuco.
D. Eh bien ! êtes-vous content de ce que j'ai fait pour vous ?	Eta bada ! bozic zaude zuretzat eguin dutanaz ?
R. Précisément je viens vous en remercier	Preseski, zuri eskherren emaitera heldu naiz.
D. La chose n'en valait pas la peine.	Gauzac ez zuen balio.
R. Oui, certes, et je n'oublierai jamais votre bienfait.	Bai, segur, eta ez dut nihoiz ere zure onguieguina ahantcico.
D. Véritablement, vous êtes trop bon.	Eguiazki, oneguia zare.
R. Si je l'avais pu, je vous en aurais donné davantage, pour vous témoigner toute ma reconnaissance.	Guehiago, ahal izan banu, emanen nauntzun, nere ezagutza guciaren zuri erakhustera emaiteco.
D. C'est bien assez, si n'est trop.	Yadanic bada frango, sobera ez bada.

R. Vous m'avez rendu un grand service ; une autre fois, je vous récompenserai mieux.	Cerbitzu handi bat eguin dautazu ; bertce aldi batez, hobekiago saristatuco zaitut.
D. S'il vous arrivait de nouveau d'avoir besoin de moi, vous me trouveriez toujours disposé à vous faire du bien.	Berriz guerthatcen bazaitzu nitaz behar izaitea, bethi causituco nauzu ekharria zuri ongui eguitera.
R. Je le veux bien ; mais aussi, ce sera toujours à charge de revanche.	Nahi dut bai ongui ; bainan ere, bethi ordaina zuri emaitecotan.
D Je vois que vous avez bon cœur et de la reconnaissance ; il y a plaisir à faire du bien à des gens comme vous.	Bihotz ona duzula bai eta ezagutza baduzula ikhusten dut ; atseguin da zu bezalacoeri ongui eguitea.
R. Je vous quitte, en vous renouvelant mes remerciements.	Uzten zaitut berriz nere eskherrac bihurtcen daitzutalaric.

—

28me Dialogue.	**XXVIII Bitart. Solasa.**
Conversation sur la paix et la guerre.	*Bitarteco solasa bakhearen eta guerlaren gainean.*
D. Que savez-vous de nouveau ?	Cer berri dakizu ?
R. et D. Je n'ai pas encore lu les journaux de ce jour ; les avez-vous lus ?	Ez ditut oraino egungo paperac iracurtu ; zuc iracurtu ditutzu ?
R. Je n'ai fait qu'y jeter un coup d'œil.	Ez diotet begui ukhaldi bat baicic eman.
D. Y avez-vous appris quelque grande nouvelle, bonne ou mauvaise ?	Han ikhasi duzu cerbait berri handi, on edo gaichto.
R. Je ne m'en suis pas aperçu.	Ez naiz deusez ere ohartu.

D. Comment sommes-nous avec lès autres puissances, avec la Prusse, avec l'Italie ?

Nola gare bertce puchantciekilan, Prusiarekin, Italiarekin ?

R. Toujours sur le même pied, assez bien.

Bethi oin berean ; askitto ongui.

D. Allons-nous à la paix, ou à la guerre ?

Bakerat bagoaci, ala guerlarat ?

R. On ne peut en rien dire de certain.

Ez daiteke hortaz deus seguric erran.

D. Les apparences sont pour la paix, c'est vrai ; mais il est à craindre qu'elle ne dure pas longtemps ; les choses sont trop embrouillées ; il y a trop de points noirs à l'horizon pour que la guerre n'éclate pas tôt ou tard.

Itchurac bakhearen alde dira, eguia da ; bainan beldurtceco da ez dezan luzaki iraun ; sobera nahaskeria da ; ceruan sobera tita belz da, guerlac goiz edo berant zaphart ez eguiteco.

R. Or donc, notre Empereur fait tout son possible pour arranger toutes choses et pour procurer le bien-être à son peuple.

Alta bada, gure Emperadoreac ahal gueiac eguiten ditu gauza gucien chuchentceco, bai eta bere populuari bicitceco molde onaren emaiteco.

D. Cela n'est pas facile.

Ez da hori errech.

R. Cependant, si quelqu'un doit réussir, c'est bien lui.

Bizkitartean, nehorc erreusitcecotz, harc eguinen du.

D. Comment sommes-nous avec les Anglais ?

Nola gare Anguelesekin ?

En apparence, très-bien, mais l'on ne peut s'y fier.

Itchuraz arras ongui, bainan ; ez da heyeri fidatceco.

D. A Rome, comment les choses vont-elles tourner ?

Erroman, nola gauzac itzulico othe dire ?

R. Dieu seul le sait ; il

Yaincoac bakharric da-

est bien difficile de deviner quelle en sera l'issue; Rome est nécessaire au Saint-Père; jusqu'ici, tous ceux qui ont voulu s'attaquer à elle, injustement, ont été brisés contre ce rocher; Dieu a dit que les portes de l'enfer ne prévaudront pas contre elle, et sa parole ne passera pas.	ki; gaitz da asmatcea nola akhabatuco diren; Aita Sainduac Errumaren beharra badu; orai artean, hari, zucen contra, bihurtu nahi izan diren guciec leher eguindute harroca horren contra; Yaincoac erran du ifernuco atheec, haren contra, deus ez dezaketela eguin eta harren hitza ez da iraganen.
D. Laissons de côté ces questions; elles ne nous concernent pas; parlons d'autres choses; savez-vous des nouvelles de la guerre?	Utz ditzagun galde horiec bazterrerat; ez dira guri behatcen; mintza gaiten bertce cerbait gaucez; guerlaco berriric badakizu?
R. Oui; on dit que les Français ont remporté une victoire; qu'elle leur a coûté cher; qu'il y a eu un carnage épouvantable; beaucoup de pertes d'hommes de part et d'autre; il y en a qui assurent qu'il y a vingt mille hommes de tués et beaucoup de blessés; que l'infanterie a beaucoup souffert; la cavalerie pas autant; qu'après une journée de combat, l'ennemi a pris la fuite.	Bai; diote Frantsesec bitoria bat eraman dutela; hainitz gosta zaiotela; izan dela sarraski bat icigarria; guizon hainitz chahutu direla bi aldetaric; badira seguratcen dutenac badela hogoi mila guizon hilic eta hainitz colpaturic; oinezcoec hainitz sofritu dutela; zaldizcoec ez hoinbertce; egun bat guducan aritu ondoan, etsaiac ihes eguin duela.
D. De qui tenez-vous tous ces détails?	Noren ganic dakizkitzu chehetasun horiec oro?
R. De personnes qui ont lu les dépêches.	Berriac iracurtu dituzten yendetaric.
D. Bah! les télégra-	Bah! telegrafa berrike-

phes rapportent souvent des mensonges ; qui connaît la vérité ?

tariec ardura guezurrac erraiten dituzte ; norc daki ongui eguia ?

R. Quoi qu'il en soit, vivent les Français ! ce sont de bons soldats ; ils n'ont pas de pareils au monde.

Cer nahi izan dadien, biba Frantsesac ! soldado onac dire ; ez dute munduan pareric.

—

29me Dialogue. — **XXIX Bitarteco Solasa**

Idem. Sur les mariages. — *Orobat. Ezcontcen gainean.*

D. Savez-vous cette nouvelle ?

Badakizu berri hori ?

R. Laquelle ?

Zoin ?

D. L'héritière de X... se marie.

X...co andregueia ezcontcen da.

R. et D. Tiens ; avec qui ?

The ; norekin ?

R. et D. Avec l'héritier de X... ; qu'en dites-vous ?

X...co premuarekin ; cer diozu escontza hortaz ?

R. Je dis que ça me paraît un mariage assorti.

Diot ezcontza guisacoa zautala.

D. D'après moi, aussi.

Neure ustez, ere bai.

R. Ils auront beaucoup de jaloux ; cela arrive toujours ; les mauvaises langues ne se tairont pas ; on y trouvera quelque chose à redire.

Bekhaizti azco izanen dute. Hori guerthatcen da bethi ; mihi gaichtoac ez dire ichilic egonen ; cer edo cer erraiteco kausituco dute.

D. Que portent-ils en dot ?

Cer ekhartcen dute dotetzat ?

R. Cent mille francs chacun.

Ehun mila libera bakhotchac.

D. C'est beau ; ce n'est pas peu.

Eder da ; ez da guti.

R. Le futur est un bien digne jeune homme.

Senhar gueia ongui muthil gazte guisacoa da.

D. La future n'est pas moins digne; on la dit bien élevée; elle fera une bonne maîtresse de maison.	Emazte gueia ez da gutiago guisacoa; diote ongui alchatua dela; etcheco andre on bat eguinen du.
R. Voilà ce que c'est que d'avoir une bonne mère qui, tout en aimant, ne pardonne rien à ses enfants.	Horra cer den ama on baten izaitea, maite dituelaric bere haurrac, deus barkhatcen ez diotena.
D. Sa fille lui en rendra grâces un jour.	Bere alabac eskherrac emanen daizco egun batez.
R. Tant il est vrai que le bien le plus sûr que puissent nous laisser nos parents, c'est une bonne éducation.	Hambat baita eguia gure burrhasoec utz dezakeguten onthasunic segurena dela ongui alchatcea.
D. Vont-ils rester ensemble, jeunes et vieux?	Elgarrekin egoitecoac dire, zahar gazteac ?
R. Je crois que oui; mais je crains qu'ils n'aillent pas bien tous ensemble, qu'ils ne puissent s'entendre; une rupture est inévitable, quand les goûts et les caractères sont différents.	Uste dut baiez; bainan, beldur naiz ez diten, oro elgarrekin, ongui yoan, ez dezaten elgar adi; baitezbada makhurrac heldu dira, gostua eta yitea bertcelacoac direnean.
D. L'avenir nous le dira, attendons.	Gueroaç erranen daraucu, gauden beha.
R. Il n'y a rien, pour avoir la paix, de plus sûr que de vivre séparément.	Ez da, bakhea izaiteco, deus seguragoric nola berech bicitcea.
D. Quand épousent-ils?	Noiz dire espos ?
R. La semaine prochaine.	Helduden astean.
D. Y aura-t-il beaucoup d'invitations aux noces?	Izanen othe da gomitu hainitz ezteietarat ?
R. On parle d'une quarantaine.	Berrogoiez da aiphu.

D. Je veux aller les voir aux pieds des autels.
R. Vous viendrez me chercher ; nous irons ensemble.

Yoan gogo naiz aldare oinetan hekien ikhustera.
Nere bilha ethorrico zare ; elgarrekin yoanen gare.

—

30me Dialogue.

Idem. Sur les accidents, les maladies et les morts.

XXX Bitarteco Solasa.

Orobat. Guerthari gaichto eritasun, eta hilen gainean.

D. Avez-vous appris ces nouvelles ?
R. et D. Quoi donc ? qu'y a-t-il ?
R. Un navire a fait côte ; cinq hommes se sont noyés ; de plus, vingt voyageurs ont péri en chemin de fer, par suite de l'explosion de la chaudière ; ce n'est pas tout : le même jour, une voiture a versé et dix personnes ont pris mal.
D. Et vous, vous ne savez pas.
R. et D. Non, quoi ?
R. Une épidémie fait des ravages terribles.
D. Où ?
R. Je ne me souviens plus où.
D. Qu'est-ce ? le choléra ?
R. Oui, sans doute ; plaise à Dieu qu'il n'arrive pas ici.

Yakin ditutzu berri horiec ?
Cer bada ? cer da ?
Untci batec kosta eguin du ; bortz guizon itho dire ; bertzalde, hogoi bideyant chahutu dire burdinazco bidetan, bertza leherturican ; ez datza hortan gucia ; egun berean, carro bat uzcailli da eta hamar presunec min-hartu dute
Eta zuc, ez dakizu ?
Ez, cer ?
Izurrite batec sarraski icigarriac eguiten ditu.
Non ?
Ez naiz orhoit non.
Cer da ? kolera ?
Bai, naski ; balinba ez zaucut hunat ethorrico, Yaincoac ez du nahico, aguian.

D. Avez-vous rien de bien nouveau ici ?

Baduzue hemen deus berriagoric ?

Monsieur N... Madame N... est fort malade.	N... yauna, N... andrea arras eri da.
D. Qu'a-t-il? hier encore il paraissait bien portant.	Cer du? atzo oraino ongui ekhartcen cen.
R. Il a été frappé d'un coup de sang.	Odol colpe batec yo du.
D Les médecins en ont-ils désespéré?	Medicuec hartaz etsi dute?
R. On le dit; il n'échappera pas, dit-on, il est à toute extrémité.	Hala diote; ez omen du escapuric, akhabailian da.
D. Tant pis; c'était un si brave homme.	Hambat gaichto; hain guizon prestua cen.
R. Ils sont rares les hommes comme lui.	Arrado dira hura bezalaco guizonac.
D. Autrement, y a-t-il ici beaucoup de mortalité?	Bertcenaz, bada hemen hiltce handiric?
R. Mais non; seulement tel... est mort.	Ez bada; choilki, hunelacoa... hil da.
D. Quand?	Noiz?
R. Avant-hier; on l'a enterré ce matin.	Herenegun; goiz huntan ehortci dute.
D. A-t-il pu se confesser?	Cofesatu ahal izan da?
R. A peine il a reçu l'extrême-onction.	Doidoia azken gantzudurac ukhan ditu.
D. Le pauvre! quel bon homme c'était!	Gaichoa! zoin guizon ona cen.
R. C'est une bien grande perte pour sa famille; il y fait un grand vide.	Galtce handia da haren familiarentzat; huts handia eguiten du han.
D. Combien d'orphelins laisse-t-il?	Zombat umezurtz uzten ditu?
R. Rien que cinq.	Bortz baicic ez.
D. Sa pauvre veuve doit être toute désolée, savez-vous s'il lui a reconnu quelque chose.	Haren alharguntsa gaichoa, dena deboilatua behar da izan; badakizu cerbait ezagutu dionez.

R. Je crois qu'il lui a laissé la jouissance de ses biens; il aurait aussi favorisé du quart l'aîné de ses enfants; il l'aimait, dit-on, beaucoup.

Uste dut bere onthasunen gozamena utci dioen; laurdenaz ere fagoratu duke haur guehiena; hainitz maite omen zuen.

D. Les voilà donc en grand deuil. Comme les choses changent; que de vicissitudes en ce monde?

Horra beraz non diren dolu handitan. Gauzac nola cambiatcen diren; cembat gorabehera mundu huntan!

R. Que voulez-vous y faire? c'est là notre dernière fin.

Cer nahi duzu eguin; hori da gure azkhen fina.

—

31me Dialogue.

XXXI Bitarteco Solasa.

Idem. Sur les récoltes, les vendanges et le cours de divers prix.

Orobat. Bihi alchatce, mahats biltce eta asco precioen kursaren gainean.

D. Y a-t-il dans votre pays apparence de bonne année?

Bada zuen herrian urthe on baten itchura?

R. Oui, si le beau temps continue comme jusqu'à ce jour.

Bai, baldin aro onac irauten badu egun artean bezala.

D. Les semailles ont-elles été faites en temps favorable?

Eregintzac eguinac izan dire aro onean?

R. Comme ci, comme ça; la sécheresse les a fait retarder d'abord et puis la pluie; à la fin elles ont été faites de quelque manière sur un sol assez humide.

Hulache, halache; idorteac guibela-araci ditu lehenic eta guero uriteac, azkenean, nolaiz bait, eguinac dire azki trempu onean.

D. Le froment est-il beau? le maïs est-il bien sorti?

Oguia ederric dago? arthoa ongui athera da?

R. Ils vont assez bien. — Aski ongui dohaci.

D. Et la vigne, a-t-elle la maladie encore cette année ? — Eta mahastiac, eritasuna badu oraino urthe huntan ?

R. Elle n'a pas paru, mais elle est à craindre. — Ez da aguertu ; bainan, beldurtceco da.

D. Il faut la soufrer. — Sofria eman behar zaio.

R. C'est trop cher. — Garastiegui (khario) da.

D. L'eau de savon la guérit, dit-on, aussi bien. — Salboin urac, diotenaz, senda-arazten du hoin ongui.

D. Cela ne coûte pas beaucoup ; on peut en faire l'expérience sur quelques grappes. — Ez da hori hainitz gostatcen ; phoroga daiteke zombait mulkhoen gainean.

D. On dit aussi qu'en la frottant avec le jus des grappes malades, on lui fait du bien. — Diote, ere, mulkho erien yusaz thorratuz, on eguiten diotela.

R. Cela n'est pas difficile à faire ; mais en tout cela je ne connais aucun remède efficace. — Ez da hori gaitz eguitea ; bainan, horietan orotan ez dut erremedio osoric ezagutcen.

D. Quel est le prix des céréales ? — Cer da bihiaren precioa ?

R. Très-cher ; le froment est monté à trente francs ; le maïs fait vingt francs. — Arras khario ; oguia hogoi eta hamar liberetarat igan da ; arthoac hogoi libera eguiten du.

D. C'est trop cher pour le menu peuple. — Sobera garasti da yende chehearentzat.

R. C'est une année mauvaise pour lui ; je ne sais comment il peut vivre, comment il peut joindre les deux bouts. — Urthe gaichto bat da harentzat ; ez dakit nola bici daitekeien, nola bi buruac yunta ditzazkeien.

D. Le prix des bestiaux n'est pas moins élevé ; on ne peut pas en approcher, jamais ils n'ont été si — Aberen precioa ez da gutiago gora ; ez daiteke hekietarat hurbil ; nihoiz ere ez dira izan hoin

chers, et ils deviennent de plus en plus rares.	khario ; eta guerorat eta arradoago dohaci.
R. On en emporte beaucoup par le chemin de fer et le pays se dégarnit ; en revanche, la race porcine se vend bon marché.	Hainitz buru eramaiten dute burdin bidez eta herria husten ari da ; ordainez, acienda beltza merke da.
D. Vous venez du marché ; à combien se vendait-elle ?	Merkhatutic heldu zare ; cembana saltceu cen ?
R. A 50 c. le demi-kilog.	Hamarna sos libera.
D. Et les œufs et les fromages, qu'ont-ils fait ?	Eta arroltseec eta gasnec, cer eguin dute ?
R. Les œufs, 40 c. la douzaine ; le fromage, 30 c. le demi-kilog.	Arroltseec, zortcira sos dotcena ; gasnac, seira sos libera.
D. Y avait-il beaucoup de monde ?	Bacen yende hainitz ?
R. Un assez bon nombre.	Parrastatto bat.
D. Y avez-vous appris rien de bien nouveau ?	Han ikhasi duzu deus berriagoric ?
R. Pas grand chose.	Ez gauza handiric.

—

32me Dialogue.	**XXXII Bitart. Solasa.**
Idem. Sur le temps.	*Orobat. Demboraren gainean.*
D. Quel temps fait-il ?	Cer dembora eguiten du ?
R. Beau temps.	Dembora ona.
D. Il a fait mauvais temps hier et toute la semaine dernière.	Dembora gaichtoa eguin du atzo eta yoanden aste gucian.
R. Il était temps qu'il se mît au beau.	Ordu zuen onerat eman cezan.
D. Avons-nous apparence de beau temps pour demain ?	Aro onaren itchurac baditugu biharco ?

R. Je le croirais; cependant le temps s'assombrit.	Uste nuke ; bizkitartean, dembora goibeltcen ari dà.
D. En effet, je vois des nuages s'élever à l'horizon, et les montagnes se charger de brouillards.	Hala da bai, ikhusten ditut hedoiac ceruan gora altchatzen eta mendiac lanhotz cargatcen.
R. Il va commencer à pleuvoir.	Uria hastera doha.
D. Voyez quelle averse! mettons-nous à l'abri.	Beha-zazu cer erauntsia! atherbean phara gaiten.
R. Quel hiver rigoureux! il neige, — il tonne, — il grêle.	Cer negu borthitza! Elhurra, — ortcia, — harria ari da.
D. Quel terrible temps! Dieu est fâché contre nous; ce sont là ses verges et ses châtiments.	Cer dembora icigarria! Yaincoa gure contra hasarre da; horiec dire haren cigorradac eta gastiguac.
R. Dorénavant, les matinées seront fraîches.	Hementic goiti, goiztiriac fresco izanen dire.
D. Ah! quel froid!	Ai! cer hotza!
R. Il y a de l'air, — du soleil, — du vent.	Bada aire, — iguzki, — haice.
D. Le vent a changé.	Haicea itzuli da.
R. Le soleil se lève, — se couche.	Iguzkia altchatcen da, — etzaten da.
D. Il y a clair de lune.	Hil argui churi da.
R. Oh! quelle belle nuit!	Oi! cer gaų ederra!
D. Comme les étoiles brillent au firmament.	Izarrec, nola dirdiratcen duten ceruan!
R. Quelle belle journée!	Cer egun ederra!
D. Il fera chaud demain.	Bero eguinen du bihar.
R. Quelle forte chaleur! j'étouffe.	Cer bero gaitza! Ithotcen ari naiz.
D. Allons à l'ombre.	Goacen itzalerat
R. Attendons le beau temps.	Gauden dembora onaren beguira.

33me Dialogue.	XXXIII Bitart. Solasa.
Idem. Sur l'heure.	*Orobat. Tenoraren gainean.*
D. Quelle heure est-il?	Cer tenor da?
R. Il est une heure, deux heures sonnées.	Oren bat da, bi oren dira yoac.
D. Avez-vous entendu ces heures ?	Oren horiec aditu ditutzu?
R. Oui, c'étaient trois heures.	Bai, hirur orenac ciren.
D. Regardez à votre montre.	Beha-zozu zure zarpaco oren guidariari ?
R. Il est près de quatre heures.	Laur orenac dira hurbil.
D. Regardez au cadran solaire.	Beha-zozu iguzkico oren guidariari.
R. Il est plus de cinq heures.	Bortz orenac baino guehiago dire.
D. Ecoutez le son de la cloche.	Adi-zazu ezkila soinua.
R. Six heures sonnent.	Sei orenac yoiten ari dira.
D. C'est bientôt l'heure de souper.	Laster afariteco ordu da.
R. Bientôt sept heures vont sonner.	Berehala zazpi orenac yoitera dohaci.
D. A quelle heure pourrai-je vous voir demain ?	Cer ordutan ikhus citzaket bihar?
R. Venez à huit heures et demie.	Zato zortciac eta erdietan.
D. J'arriverai à neuf heures, au plus tard.	Bederatcietan ethorrico naiz, berantenaz.
R. Pourquoi pas à midi, nous dînerons ensemble.	Cergatic ez eguerditan, elgarrekin bazcalduco gare.
D. Comme le temps passe vite.	Dembora zoin laster dohan.
R. Oui, ainsi passe la vie de l'homme.	Bai, hola iragaiten da guizonaren bicia.

D. Il est temps de nous en aller.	Yoan ordu dugu.
R. Il est minuit précis. Allons à la maison.	Gau erdi da chuchen. Etcherat goacen.
D. Soupez et dormez.	Eguizu afari eta lo.
R. Bonne nuit, — bonne matinée, — bonsoir.	Gau on, — goiz on, — arrats-alde on.

—

34me Dialogue. / XXXIV Bitart. Solasa.

Idem. Sur le français et le basque. / *Orobat. Frantsesaren eta escuararen gainean.*

D. Parlez-vous le basque ?	Escuaraz mintzo zare?
R. Pas trop ; je le comprends assez bien, quand on parle posément.	Ez sobera ; endegatzen dut aski ongui, erreposki mintzo direnean.
D. Et vous, savez-vous le français ?	Eta zuc, badakizu frantsesa ?
R. Un peu, pas beaucoup.	Aphur bat ; ez hambat.
D. Vous ne savez pas bien le français ni moi le basque ; comment donc nous entendre ?	Zuc, ez dakizu ongui frantsesa, nic ere ez escuara, nola bada elgar adi ?
R. Parlons toujours, bien ou mal, et sans honte l'un de l'autre, dussions-nous commettre quelques fautes.	Mintza gaiten, bethi, ongui edo gaizki, eta bata bertcearen ahalgueric gabe, cembait huts egüinican ere.
D. Comment appelle-t-on ceci en français ?	Frantsesez nola deitcen da hori ?
R. et D. Le voici ; et cela, comment le nomme-t-on en basque ?	Huna nola ; eta hura, nala deitcen da escuaraz ?
R. Ainsi.	Hunela.
D. Enseignez moi comment il faut demander telle chose ?	Erakhus diezadazut nola galdatu behar den holaco gauza ?
R. Ecoutez-moi bien.	Adi-nezazu ongui.

D. Répétez-le de nouveau ?	Berriz erran diezadazut.
R. Il n'est pas difficile à retenir.	Ez da gaitz atchikitceco.
D. C'est possible, mais j'ai la tête fort dure, et d'ailleurs le basque est plus difficile à apprendre que le français.	Baditake, bainan, burua arras gogorra dut, eta bertzalde, escuara gaitzago da ikhasteco ecen ez frantsesa.
R. Faites bien attention ; je vous dirai clairement et lentement toutes les paroles.	Khasu eguizu ongui ; hitz guciac garbiki eta emeki erranen daitzut.
D. Comment dit-on X.	Nola erraiten da X.
R. De cette manière.	Guisa huntan.
D. Que veut dire ce mot-là ?	Cer erran nahi du hitz horrec ?
R. Ce mot signifie X.	Hitz horrec erran nahi du X.
D. A force de parler, à la fin, vous l'apprendriez.	Mintzatcearen borchaz, azkenean, ikhas cinezake..
R. J'y renonce ; c'est trop difficile.	Ikhastea arnegatcen dut ; nekheegui da.
D. Il ne faut pas se décourager.	Ez da lotsatu behar.
R. Il est facile de le dire, à celui qui le sait.	Dakienari errech da horrela erraitea.

—

35me Dialogue.	**XXXV Bitart Solasa.**
Idem. Pour affirmer et nier une chose.	*Orobat. Gauzabaten sustengatceco eta ukhatceco.*
D. Avez-vous appris telle nouvelle ?	Ikhasi duzu hunelaco berria ?
R. Oui, je l'ai su ; mais je ne puis le croire.	Bai, yakin dut ; bainan, ez dezaket sinhets.
D. Cependant, cela est vrai.	Bizkitartean, hori eguia da.

R. Vous le dites, mais moi je ne le crois point; non, cela n'est pas.	Zuc diozu, bainan nic ez dut sinhesten; ez, ez da hori hala.
D. Je vous dis que si.	Erraiten dautzut baiez.
R. Et moi, je vous dis que non.	Eta nic, erraiten dautzut ezez.
D. Je vous le dis sérieusement.	Cin cinez erraiten dautzut.
R. Vous voulez me tromper.	Enganatu nahi nauzu.
D. Je vous le prouverai.	Frogatuco dautzut.
R. C'est un mensonge.	Guezur bat da hori.
D. Je vous jure que c'est la vérité.	Cin eguiten dautzut eguia dela.
R. Non, cela ne peut pas être.	Ez, hori ez daiteke izan.
D. C'est très-sûr; vous pouvez me croire.	Arras segura da; sinhets nezakezu.
R. J'ai de la peine à le croire.	Nekhe zait sinhestea
D. J'en suis sûr.	Segur naiz.
R. Vous le pensez ainsi.	Zuc horrela uste.
D. Je vous demande bien pardon, mais cela est; je vous parle en vérité.	Barkha-diezadazut, bainan, hori hala da; eguiaz mintzo nautzu.
R. Taisez-vous; comment cela pourrait-il être; ça n'a pas d'apparence.	Zaude ichilic; nola izan daiteke hori; ez du horrec itchuraric batere.
D. J'en ai la certitude.	Segurantza badut.
R. Vous voulez vous moquer de moi.	Nitaz trufatu nahi zare.
D. Quel homme incrédule!	Cer guizon sinhets gaitza!
R. Quel homme crédule!	Cer guizon sinhets korra!
D. Rien de plus vrai.	Ez da eguiagoric.
R. Rien de plus faux.	Ez da guezurragoric.

D. Que je meure si je mens.	Hil nadiela guezurra baldin badiot.
R. Ne parlez pas ainsi inutilement.	Ez zaitela horrela mintza alferretan.
D. Vraiment, tenez, le voilà; je lève le bras.	Hain eguiaz, ori, hara besoa; alchatcen baitut.
R. Vous faites exprès; ne me faites pas inquiéter.	Aleguia bai ari zare; ez ni khecha-araz.
D. Restez avec votre tête dure, puisque vous ne voulez pas me croire.	Zaude zure buru gogorrarekin sinhetsi nahi ez nauzunaz gueroztic.
R. Réservez vos mensonges pour d'autres ; vous ne me les ferez jamais croire à moi.	Atchic-aitzu bertcentzat zure guezurrac; ez aditatzu nihoiz ere niri sinhets-aracico.
D. Allez donc vous promener, bonjour.	Zohaz beraz phaseatcera, egun on.
R. Pareillement.	Gauza bera.

—

36me Dialogue.	**XXXVI Bitàrt. Solasa.**
Idem. Pour exprimer le doute, la surprise, l'admiration.	*Orobat. Gauza dudazcoen, ustegabecoen eta miragarrien erraiteco.*
D. On dit que...	Diote....
R. Oh ! bah !	Oi ! bah !
D. Serait-ce possible?	Othe daiteke ?
R. Quoi ! oui ! vraiment !	Cer ! bai ! eguiazki !
D. C'est assez vraisemblable.	Badu aski eguiaren itchura.
R. Oui, en vérité.	Bai, hain eguiaz.
D. Il n'y a rien d'étonnant à cela.	Ez da hortan deus miretsgarriric.
R. Je doute que cela soit.	Dudatcen dut hori hala ditakeiela.
D. Cela pouvait arriver.	Hori guertha daiteke.
R. Vous m'effrayez.	Harritcen nauzu.
D. Il n'y a rien d'impossible.	Ez da deus guertha ez daitekeienic.

R. C'est cela, mais...	Hala da, bainan...
D. Cela se voit tous les jours.	Hori ikhusten da egun oroz.
R. C'est une chose inouïe jusqu'ici ; une nouvelle inattendue pour moi.	Orai dino aditu ez den gauza da hori, uste gabeco berria neretzat.
D. On a vu des choses plus étonnantes.	Ikhusi da gauza espantagarriagoric.
R. Vous le dites ; pour moi, j'en suis effrayé.	Zuc diozu ; ni seguric harritua naiz.
D. Laissons cela ; que me dites-vous de ?...	Utz dezagun hori ; cer diozu... taz ?...
R. Oh ! chose admirable !	Oi ! gauza miragarria !
D. N'est-ce pas que c'est beau !	Ez dea ederra !
R. C'est on ne peut plus charmant.	Ez daiteke izan charmagarriagoric.
D. Quel spectacle !	Cer gauza ikhusgarria !
R. J'en suis ébloui.	Llilluratua naiz.
D. Moi aussi.	Ni ere bai.
R. Il n'a jamais rien paru d'aussi beau.	Ez da nihoiz hain ederric aguerthu.
D. En verrons-nous jamais d'autre.	Ikhusico othe dugu seculan bertceric.
R. Difficilement.	Nekhez.

37me Dialogue. — XXXVII Bitart. Solasa

Idem. Pour témoigner la joie et l'affliction. — *Orobat. Bozcarioa eta atsekhabearen seinalatceco.*

D. Vous ne savez pas encore ?	Ez dakizu oraino ?
R. Quoi donc ?	Cer bada ?
D. Telle chose.	Holaco gauza.
R Oh ! quel bonheur !	Oi ! cer zoriona !
D. J'en ai bien plaisir moi aussi.	Arras atseguin dut nic ere.

R. O mon Dieu! que je suis content!	Oi Yainco ona! zoin bocic nagon!
D. Quel baume, quelle douceur pour le cœur!	Cer balsama, cer gozoa bihotceco.
R. Rien ne pouvait m'arriver de plus heureux.	Ez zakidan deus dohatsuagoric guertha.
D. Non plus qu'à moi.	Ez eta niri ere.
R. Mes vœux sont accomplis.	Nere botuac complituac dire.
D. Tous mes désirs sont satisfaits.	Nere nahi guciac betheac dire.
R. Je savais que je ne pouvais vous apprendre une plus agréable nouvelle.	Banakien ez nezakezula berri atseguin-agoric ikhas.
D. J'en suis fou de joie.	Bozcarioz choratua nago.
R. J'étais sûr de vous rendre heureux.	Segur nintcen zorionean zure ezartcea.
D. Oui, certes; j'en suis plus heureux que de la possession de toutes les richesses de ce monde.	Bai, segur; urus-ago naiz horiaz mundu huntaco onthasun guciac izaiteaz baino.
R. Je vous crois aisément; car, contentement passe richesse.	Sinhesten zaitut errechki, ecen barneco bozcarioa onthasun guciez goragocoa da.
D. Cela est bien vrai.	Hori egui handia da.
R. Oui, sans doute; mais aussi, il est dit qu'à la joie succède l'affliction.	Bai, naski, bainan ere, errana da bozcalentciaren ondotic atsekhabea heldu dela.
D. Auriez-vous quelque mauvaise nouvelle à m'apprendre?	Bacinukea cerbait berri gaichto niri ikhasteco?
R. Hélas, oui, telle chose.....	Ondicotz, bai, hunelaco gauza.....
D. Oh! dans quelle affliction vous me plongez.	Oi! cer atsekhabean pulumpatcen nauzun.

R. Je ne pouvais vous le cacher davantage.	Ez nezakezun gorde guehiago.
D. J'en suis dans le chagrin.	Grigna handian nago.
R. Vous en êtes inconsolable.	Ez zaitezke contsola.
D. Quel affreux malheur !	Cer zorigaitz tristea !
R. Quel malheureux accident !	Cer guerthacari ondicozcoa !
D. Quelle déplorable nécessité !	Cer ecinbertce auhendagarria !
R. Quelle fatalité lamentable !	Cer lastima nigareguingarria !
D. Quelle action criante !	Cer eguitate deithoragarria !
R. Quelle perte inattendue ! C'est vraiment désespérant.	Cer ustegabeco galtcea ! Eguiazki etsigarri da.

—

38me Dialogue.	**XXXVIII Bit. Solasa.**
Idem. Pour faire des reproches, pour menacer, pour exprimer sa colère.	*Orobat. Gaizkien erraitecc, mehatchatceco, haserredúraren erakhusteco.*
D. Vous êtes là ?	Hor zare ?
R. et D. Oui, me voici, qu'y a-t-il ensuite ?	Bai, huna ni, cer da guero ?
R. Ce qu'il y a ? c'est que je suis fort fâché contre vous.	Cer den ? zure contra arras hasarre naicela.
D. Pourquoi ?	Cergatic ? certaco ?
R. Parce que.	Haren gatic, hartaco.
D. Quel mal vous ai-je fait ?	Cer gaizki eguin dautzut ?
R. Vous me mettez toujours de mauvaise humeur.	Bethi ezartcen nauzu omore gaichtoan.

D. Pourquoi êtes-vous si inquiet ?	Certaco zare hoin khechu ?
R. Méchant que vous êtes !	Zu zaren bezalaco gaichtoa !
D. Qu'est-ce qui vous aigrit ainsi ?	Cerc horrela gaitzesten zaitu ?
R. Vous êtes dégoûtant.	Nardagarria zare.
D. Quelle mouche vous pique ?	Cer ulic chiztatcén zaitu ?
R. Fi donc ! quelle vilenie vous m'avez faite ?	Hu bada ! cer itsuskeria eguín dautazun ?
D. Qu'est-ce qui vous agite ?	Cêrc nahasia zauca ?
R. Vous devriez avoir honte !	Ahalgue behar cinuke.
D. De quoi ?	Certaz ?
R. Vous ne savez pas que vous ayez mal agi.	Ez dakizu gaizki eguin duzula.
D. En quoi et comment ?	Certan eta nola ?
R. N'y revenez plus.	Ez berriz itzul.
D. Dites-moi clairement ce que vous avez contre moi, pour me faire ainsi des reproches.	Garbiki erradazut cer duzun neretaco ; guisa hortan niri gaizkica hartceco.
R. Je vous pardonne cette fois, mais gare si vous recommencez.	Aldi huntan barkhatcen dautzut, bainan guardia berriz hasten bazare.
D. Mais, monsieur, expliquez-vous donc, je suis rassasié de votre blague.	Bainan, yauna, garbiki mintza zaizkit bada ; asea naiz zure erasiez.
R. Ne me répondez pas ainsi ; doucement, je vous prie, doucement.	Ez niri, horrela, iherdets ; eztiki, othoi, eztiki.
D. Vous êtes un mauvais drôle.	Tchirtchil tchar bat zare.
R. Et vous un autre.	Eta zu bertce bat.
D. Si je prends un bâton, je t'abîme.	Makilla bat hartcen badut, chehacatcen hait.
R. Je voudrais te voir.	Nahi hintuzket ikhusi.

D. Pif, paf, attrape ça; va-t-en d'ici, gare à toi.

Pinpi, panpa, harrapa zac hori; habil hemendic, guardia hiri.

R. Je m'en vais, mais je ne l'oublierai pas.

Banohac, bainan ez zautac ahantcico.

—

39ᵐᵉ Dialogue.

Pour acheter ou vendre un cheval, une paire de bœufs, une vache, etc.

XXXIX Bitart. Solasa.

Zaldi baten, idi pare baten, behi baten erosteco edo saltceco, etc.

D. Ce cheval est-il à vendre?

Zaldi hori saltcecoa da?

R. et D. Oui; voulez-vous l'acheter?

Bai; nahi duzu erosi?

R. et D. Il est très-maigre; il a l'air fatigué.

Arras mehea da; idurız nekhatua da.

R. N'importe; il est bien bon, soit pour selle, soit pour voiture.

Deus ez du munta, arras ona da; bai azpico, bai carroco.

D. Quel âge a-t-il?

Cer adin du?

R. Sept ans au plus.

Zazpi urthe gorenaz.

D. Oui, et le surplus?

Bai, eta gaineracoac bertzalde.

R. Examinez-le; voyez ses dents.

Mira-zazu; beha-zozute hortceri.

D. On ne peut plus connaître son âge; il ne marque plus.

Ez daiteke guehiago horren adina ezagut; cerratua da.

R. Vous ne vous y entendez pas.

Ez zare aditcen.

D. Il a les yeux troubles, l'encolure longue, la tête basse, la crinière dégarnie, le poitrail étroit, la croupe vilaine et les jambes grosses. C'est un cheval vieux, usé et maladif.

Beguiac nahasiac ditu, lephoa luce du, burua aphal, khomba murritz, bulharra hertsi; guibel aldea itsusia, zangoac ere ditu lodi; zaldi zahar bat da hori, higatua eta ericorra.

R. Ne le dépréciez pas ainsi ; il est meilleur que vous ne croyez.	Ez dezazula horrela aphal ; zue uste duzun baino hobeago da.
D. Voyons ; faites-le marcher ; au pas, — au trot, — au galop.	Ikhus ; ibil-araz-zazu ; urhatsean, — trostan, — calopan.
R. et D. Il est ombrageux, — rétif, — boiteux ; il n'est pas bien dressé ; il ne vaut pas grand'chose ; combien voulez-vous en faire ?	Icicorra da, yauzcorra — maingua ; ez da ongui hecia ; ez du gauza handiric balio ; cembat eguin gogo duzu hortan ?
R. Cent louis (trois cents francs).	Ehun luis (hirur ehun libera).
D. Vous vous moquez de moi ; vous me demandez là un prix fou ; le double de ce que ça vaut.	Nitaz trufatcen zare ; precio erho bat galdatcen dautazu hor, balio duenetic doblia.
R. et D. Voulez-vous le prendre pour quatre-vingt-dix écus ?	Hartu nahi dauzu laur hogoi eta hamar luisetan ?
R. Non, non ; c'est trop cher.	Ez, ez, karioegui da.
D. A qui sont ces bœufs ?	Idi horiec, norenac dire ?
R. Ils sont à moi.	Nereac dire.
D. Sont-ils à vendre ?	Saltcecoac dire ?
R. Oui ; voulez-vous les acheter ?	Bai ; erosi nahi dituzu ?
D. Que valent-ils, d'après vous, quelque chose haut ou bas ?	Cer balio dute, zure ustez, guti gora behera ?
R. Cinquante pistoles (dix francs la pistole), serait-ce trop vous demander ?	Berrogoi eta hamar pistola, sobera zuri galdatcea othe liteke ?
D. Vous ne voulez pas faire de traité avec moi, je m'en vais.	Ez duzu nerekilan traturic eguin nahi ; banoha.
R. Venez ici.	Zato hunat.

D. J'arrive ; mais donnez-moi votre dernier prix.	Heldu naiz ; bainan, emadazut zure azken precioa.
R. Ils valent certainement le prix que je vous ai demandé ; mais, tenez, prenez-les pour quarante-huit pistoles ; je veux pouvoir traiter une autre fois aussi avec vous.	Balio dute segurki galdatu dautzutan precioa ; bainan, ori, hart zaitzu berrogoi eta zortci pistoletan ; nahi dut zurekilan bertce aldi batez ere tratu eguin ahal izan.
D. Combien laisserez-vous d'arrhes ?	Zombat erres utcico ditutzu ?
R. Ce que vous voudrez : vingt francs, quarante francs.	Nahi duzuna : hogoi libera, berrogoi libera.
D. Et quel délai pour le paiement ?	Eta cer ephe pagamenduarentzat ?
R. Quinze jours, un mois, est-ce assez ?	Hamabortz egun, hilabete bat, bada aski ?
D. C'est fait ; donnez-moi la main.	Eguina da ; emadazut escua.
R. La voilà.	Ori.
D. Ohé ! ami, cette vache est-elle à vous ?	Oho ! adichkidea, behi hau zurea da ?
R. Oui, elle est à moi ; vous avez l'idée de l'acheter ?	Bai, nerea da ; baduzu hunen erosteco gogoa ?
D. Combien donne-t-elle de lait par jour ?	Zombat esne emaiten du egunean ?
R. Dix litres.	Hamar phinta.
D. Que vaut-elle ?	Cer balio du ?
R. Huit louis d'or pour vous	Zortci urhe zuretzat.
D. Voudriez-vous faire un échange ?	Nahi cinduke trucada bat eguin ?
R. Aussi bien, si cela me convient.	Hoin ongui, baldin guisa bazaut.
D. J'ai là, tout près d'ici, une vache grasse propre à la boucherie et	Badut hor, hementic hurbil, behi guicen bat phicoco on dena eta es-

qui ne me donne plus de lait ; voulez-vous venir la vo ir

R. et D. Oui ; c'est celle là ; elle ne vaut pas la mienne ; que me donnerez-vous en sus ?

R. Quoi ? Au contraire, c'est vous qui devez me donner le surplus

D. Nous ne pourrons nous entendre.

R. et D. Peut-être ; je crois que l'une vaut l'autre ; faisons seulement un échange sans surplus ; et que ce soit fini en peu de mots.

R. Allez vous promener ; tenez votre vache ; je garde la mienne ; nous nous entendrons mieux une autre fois.

neric emaiten ez dautana ; nahi duzu ikhustera ethorri ?

Bai, hori da ; ez du neurea balio ; cer emanen dautazu gaineraco ?

Cer ? Aldiz, zuc eman behar dautazu gaineraticoa.

Ez dugu elgar adituco ahal.

Behar bada ; uste dut batac bertcea balio duela : eguin dezagun choilki trucada bat gaineracoric gabe ; eta akhabo hitz gutiz.

Zohaz phaseatcera ; atchic-azu zuc zure behia ; nic beguiratuco dut nerea ; hobekiago bertce aldi batez elgar adituco dugu.

—

40me Dialogue.

Pour acheter volaille, poisson, légumes, fruits, au marché.

D. Madame veut-elle rien acheter ?

R. Combien vaut cette paire de poules ?

D. Prenez-les d'abord en mains, pesez-les, et voyez comme elles sont grasses et lourdes.

R. Comme ci, comme ça.

XL Bitarteco Solasa.

Merkhatuan, puraillerla, arrain, eltcecari, fruitu erosteco.

Andreac cerbait nahi du erosi ?

Oillo parc huncc, zombat du balio ?

Lehenic escuetan hart zaitzu, hazta eta ikhus zoin diren guicen eta phizu.

Hulache, halache.

D. Vous n'en trouverez pas de plus belles dans tout le marché.

Ez duzu merkhatu gucian ederragoric kausituco.

R. et D. Il faut bien espérer que oui, combien valent-elles ?

Bai, balinba ? zombat dute balio ?

R. Quatre francs, pour vous.

Laur libera, zuretzat.

D. Gardez-les ; je m'en vais à d'autres.

Atchic-aitzu ; bertcetarat banoha.

R. et D. Trois francs et demi, dernier prix, les voulez-vous ?

Hirur libera eta erdi, azken precioa, nahi ditutzu ?

R. Je n'en veux pas.

Ez ditut nahi.

D. Madame, pour 3 fr.

Andre, hirur liberetan.

R. Allons, je vous les prends.

Hots, hartcen daizkitzut.

D. Je n'y gagne rien ; vous faut-il des poulets, des canards, des chapons ?

Ez dut deus horietan irabazten ; baduzu oillasco, ahate, gaphoin beharric ?

R. Pas aujourd'hui.

Egun ez.

D. Marie ? A combien la livre de thon, — la douzaine de sardines ?

Maria ? Zombana libera athuna, — dotcena chardina ?

R. A 50 c.

Hamarna sos.

D. Voulez-vous me le donner à 25 c. ?

Nahi dautazu eman bortzna ?

R. Vous croyez que je l'ai volé ! adressez-vous à d'autres.

Uste duzu ebatsia dutala ! zohaz bertcetarat.

D. Marchande, donnez-moi des légumes pour le dîner : choux, poireaux, carottes, persil, etc.

Tratularia, emadazut bazcariteco eltcecariac : aza, phorru, phastenagre, perrechil eta gaineracoac.

R. les voilà.

Horra.

D. Combien le tout ?

Zombat guciec ?

R. 25 c.

Bortz sos.

D. A combien les petits pois ?

Zombana ilhar chehea ?

R. A 50 c. le plat.	Gathelua hamarna sos.
D. Mesurez-m'en deux et mettez-les moi avec précaution dans ce panier.	Izart diezadatzut biga eta pullikitto ezart otharre huntan.
Madame, vous faut-il du fruit? des cerises, des fraises, des poires, des pommes; il y a de tout ici à choisir.	Andre, baduzu fruitu beharric? guereciac, marhubiac, udareac, sagarrac; bada hemen gucietaric hautatceco.
D. Donnez-m'en pour 50 c. et des plus beaux.	Emadaitzut hamar sosena eta ederrenetaric.
R. et D. Je vous servirai bien: vous ne désirez pas autre chose?	Ongui cerbitzatuco zaitut, ez duzu bertceric guticiatcen?
R. Non; j'en ai assez pour aujourd'hui.	Ez, egungo badut aski.

—

41me Dialogue.	**XLI Bitarteco Solasa.**
Pour acheter des meubles	*Mubleen erosteco.*
D. Avez-vous des bois de lit à vendre?	Baditutzu ohe zurac saltceco?
R. et D. Il n'en manque pas; comment les voulez-vous?	Ez da escasic; nolacoac nahi ditutzu?
R. En noyer ou en cerisier, cela m'est égal, du moins cher.	Intzaurrezcoac edo guerecizcoac, bardin zaut, gutiena khario denetic.
Ayez-vous aussi besoin de ciels-de-lit?	Baduzu ere ohe ceru beharric?
R. et D. Faites-les moi voir; vous n'en avez pas d'autres?	Erakhus-aitzut; ez duzu bertceric?
R. Oui; mais c'est plus cher.	Bai; bainan khariago dira.
D. Avez-vous des matelas, des oreillers, des couvertures?	Baditutzu matalazac, burudiac, estalguiac?
J'en ai de toutes sortes; venez choisir.	Baditut mota gucietaric; zato hautatcera.

D. Et les chaises, les armoires, les malles, où les avez-vous ?	Eta kaderac, harmarioac, khutchac non ditutzu ?
R. et D. Tout à l'heure ; l'une après l'autre ; les voulez-vous très-fortes ?	Berehala ; bat bertcearen ondotic ; arras hazcarrac nahi ditutzu ?
R. Quoi donc ? oui, certainement.	Cer bada ? bai, segurki.
D. Vendez-vous des garnitures de lit, rideaux, rechanges ?	Saltcen ditutzu oheco garnidurac, dilingacoac, aldagarriac ?
R. et D. Aussi ; de quelle qualité les désirez-vous ; et quel est le prix que vous voulez y mettre ?	Bai eta ere ; cer guisatacoac guticiatcen ditutzu, eta cer precio eman nahi diozute ?
R. Je les veux communes et à bon marché.	Arruntac eta merke nahi ditut.
D. Les voilà ; cela vous plaît-il ?	Horra non diren ; guisacoac zaizkitzu ?
R. et D. Çà me va ; que vaut le tout ensemble ?	Bazaut ; cer du denac balio ?
R. Cent francs, le plus juste prix.	Ehun libera, precio zucenena.
D. Vous ne rabattez rien ?	Ez duzu deusic khentcen ?
R. Je ne le puis ; mais je me charge de l'emballage.	Ez dezaket ; bainan, balotetan ezartceaz kargatcen naiz.
D. C'est bien ; on viendra les prendre demain ; je dois aller, ce soir, acheter des vêtements.	Ongui da ; bihar ethorrico dire bilha ; gaur, arropa erostera yoan behar naiz.
R. Salut, jusqu'à une autre fois.	Agur, bertce aldi artio.

— —

42me Dialogue.	**XLII Bitarteco Solasa.**
Pour acheter des vêtements.	*Arropen erosteco.*
D. Bonjour ; on vend ici des étoffes pour habits ?	Egun on ; hemen saltcen dire arropa guciac ?
R. Oui, et de choix.	Bai, eta hautac.
D. A combien ce drap?	Zombana oihal hori ?
R. A dix francs l'aune.	Hamarna libera, berga.
D. C'est trop cher.	Sobera khario da.
R. Nous en avons à meilleur maché.	Merkeagoric ere badugu.
D. Celui-là me plaît, pouvez-vous me le donner à neuf francs ?	Agradatcen zaut hori, bederatcira eman dezakezu ?
R. et D. Combien d'aunes prendrez-vous ?	Cembat berga hartuco ditutzu ?
R. Une quinzaine.	Hamabortz bat.
D. Prenez toute la pièce.	Hart zazu pheza gucia.
R. Je n'ai pas besoin de tant.	Ez dut hoinbericen beharric.
D. J'en ai de meilleur marché ; désirez-vous les voir ?	Merkeagoric badut ; nahi ditutzu ikhusi ?
R. Non ; celui-là me plaît ; si vous vouliez me le donner à neuf et demi, je vous en achèterais vingt aunes.	Ez ; hortaz agradatcen naiz ; nahi bacindaut eman bederatci eta erdira, hogoi berga erosico daitzut.
D. Vous ne l'aurez pas ; dois-je le couper, oui ou non ?	Ez duzu izanen ; phicatu behar dut, bai ala ez ?
R. Allons, coupez-le ; au moins, faites-moi bonne mesure.	Hots, phica-zazu ; bederen eguidazut izari ona.
D. Tenez, voyez, je vous donne ceci en plus.	Ori, beha zazu, hauche emaiten derautzut gaineratico.

R. Voilà l'argent ; je viendrai le prendre tout à l'heure ; j'ai besoin d'acheter des rubans.

Horra dirua ; berehala etborrico naiz horren hartcera ; chingolac erosi behar ditut.

D. Madame, combien valent les rubans ?

Andre, chingolec zombat dute balio ?

R. Il y en a de toutes sortes et de toutes largeurs ; du rouge, de l'écarlate, du blanc, du bleu, du vert, de toute couleur ; choisissez là.

Badire guisa gucietatacoac eta zabaltasun gucietacoac ; gorriac, gorriminac, zuriac, urdinac, pherdeac, colore gucietacoac : hor hauta.

D. Je voudrais acheter autre chose pour ornement d'un manteau, — d'un habit, — d'une robe, — d'un jupon, — d'une chemise.

Bertce cerbait erosi nahi nuke, capa, — ailamendu, — arroba, zaiazpico, athorra baten edergailutzat.

R. Nous avons ce qu'il vous faut..

Zuc behar duzuna badugu.

D. Faites-le moi voir ?

Erakus diezadazut ?

R. Le voilà.

Horra.

D. Qu'est-ce que cela vaut ?

Cer du horrec balio ?

R. Je vous le donne pour cinq francs.

Bortz liberetan emaiten dautzut.

D. C'est trop ; çà ne vaut pas autant.

Sobera da ; ez du hoinbertce balio.

R. Je ne surfais jamais.

Ez dut nihoitz ere balio duenetic goiti galdatcen.

D. Donnez-le moi pour quatre francs.

Laur liberetan emadazut.

R. Je ne puis vous le donner ; j'y serais perdant. Voyez comme c'est bon et joli, c'est de la dernière mode ; je viens de le recevoir de Paris.

Ez dezakezut eman ; galtcean ninteke ; behazazu zoin ona den eta pullita ; azken modacoa da ; Parisetic berritan errecibitua dut.

D. Tranchons par moitié.

Erditic trenca dezagun.

R. et D. Soit, vous n'avez pas besoin d'autre chose ?	Boha ez duz bertce cerbaiten baharric ?
R. Pas en ce moment.	Orai ez.

43me Dialogue.	**XLIII Bitarteco Solasa**
Pour acheter une montre et de la bijouterie.	*Zarpaco oren guidari baten eta urrhe cilharreriaren erozteco.*
D. Monsieur, — madame, donnez-vous la peine d'entrer ; asseyez-vous, voilà un siége ; que demandez-vous ?	Yauna, — andrea sartzaite, nekhe ez hazautzu ; yart-zaite, horra alki bat ; cer galde-eguiten duzu ?
R. Je voudrais acheter une montre.	Zarpaco oren guidari bat erosi nahi nuke.
D. En or ou en argent?	Urrhezcoa ala cilharrezcoa ?
R. et D. Faites-m'en voir des deux.	Bietaric erakhutz diezadazut
R. En voici une anglaise, elle est excellente.	Huna bat anguclesa, arras ona da.
D. Me la donnerez-vous à l'épreuve ?	Phoroantzan emanen derautazua ?
R. Oui ; mais pour un an seulement.	Bai, bainan urthe batentzat choilki.
D. Quelle en est la valeur ?	Cer du balioa ?
R Deux cents francs.	Berrehun libera.
D. Que pèse la boîte en or.	Urrhezco estalguiac cer phizu du ?
R. Elle a soixante francs d'or,	Hirur hogoi liberaren urhea badu.
D. Mais, sur le prix, vous m'en réparerez une autre ?	Bainan, precioaren gain, bertce bat moldatuco derautazu ?
D. Voyons, qu'a-t-elle?	Eia ikhus, cer du ?
R. Il y a peu de travail à faire.	Lan guti da eguiteco.

D. [illegible]

[illegible]

R. [illegible]

D. [illegible]

R. Dans [illegible]

D. [illegible]

R. [illegible]

D. [illegible]

R. et D. [illegible]

R. [illegible]

D. [illegible]

R. [illegible]

D. [illegible]

R. [illegible]

D. Vous [illegible]

R. [illegible]

D. Bonne fête ! amusez-vous bien.

[illegible]

Merse [illegible]

[illegible]

Bertze [illegible]

[illegible]

Besta on ! gosta zaite ongui.

R. Merci. — Eskherric aski.

44me Dialogue. — **XLIV Bitarteco Solasa.**

Pour faire quelque commande à un tailleur, à une couturière. — *Cerbait manu eguiteco chachtre bat, dendari bati.*

D. Ce maudit tailleur me fait bien attendre, un jour où j'ai tant à faire ; j'enrage. — Chachtre madaricatu harrec ungui iguricaraz-ten nau, hoinbertce eguiteco dutan egun batean.

R. et D. Me voici, monsieur, qu'y a-t-il pour votre service ? — Huna ni, yauna, cer da zure cerbitzuco ?

R Ah ! vous voilà ; j'allais me fâcher tout de bon contre vous. — Ah ! hor zare ; cincinez zure contra hassarretcera nindohan.

D. Je n'ai pu venir plus tôt; j'ai travaillé toute la nuit pour coudre votre habit ! Je viens de l'achever, voudriez-vous le mettre dessus ? — Ecin ethorri naiz lehenago : gau gucia laneanaritu naiz zure airamenduaren yosteco : akhabatcetic heldu naiz : nahi cinuke soinean ezarri ?

R. et D. Je le veux bien ; donnez-le-moi, croyez-vous qu'il m'aille bien ? — Bai, segur, nahi dut, emadazut, ongui yohan zaitala uste duzu ?

R. et D. Très-bien : je défie qui que ce soit de le faire mieux. — Arras ongui : nornahi desafiacen dut hobekiago eguitetic.

R. Jactance. C'est le propre de tous les tailleurs. Les manches ne sont-elles pas trop étroites ? — Espantu. Chachtre guciena da hori. Mahungac ez othe dire hertsiegui ?

D. C'est la mode : si vous voulez, je vous les élargirai. — Moda da hola : nahi baduzu, largatuco deraizkitzut.

R. Non, il n'y a pas de quoi	Ez, ez da ceren.
D. Boutonnez-vous et regardez-vous à la glace.	Potdina-zaite eta miraileac beguizta.
R. Il y a trop de plis.	Sobera pleguda.
D. Ils s'effaceront lorsque vous l'aurez mis dessus deux ou trois fois.	Eceztatuco dire bizpahirur aldiz soinean ezarri duzuneco.
R. Nous le verrons après.	Guero ikhusico.
D. Avez-vous quelque autre ouvrage à me donner?	Baduzu bertce cerbait lan niri emaiteco?
R. Faites-moi un gilet et une paire de pantalons.	Eguidaitzut barneco bat eta galtza pare bat.
D. De quel drap, de quel prix, avec quelle doublure?	Cer oihaletic, cer preçiotacoa, cer horradurekin?
R. Je veux du bon et du beau, quel qu'en soit le prix; le bon a toujours plus de durée:	Onetic eta ederretic nahi dut, nolaco nahi izan dadien precioa: onac bethi iraupen guehiago du.
D. C'est vrai, et à la fin c'est le meilleur marché: car il est dit: le drap de Rouen étant bon marché, est cher.	Hala da, eta azkenic, hura da merkena: ecen, errana da: Erroango oihala, merke delaric, khario da.
R. Voici la couturière!	Huna dendaria!
D. Vous allez me confectionner au plus tôt un robe et un jupon.	Behar daitatzu, lehen, bai lehen, arroba bat eta zai-azpico bat eguin.
R. Quand vous voudrez.	Nahi duzunean.
D. Demain même, si vous le pouvez, et de bon matin.	Bihar berean, yiten ahal bazare, eta goiz goicetic.
R. Je suis prise pour demain: je viendrai après-demain.	Biharco hartua naiz: etci ethorrico naiz.
D. Soit donc, après-de-	Boha beraz etci, ez

main : n'y manquez pas.	hutsic eguin.
R. Me voici.	Huna ni.
D. Vous voilà, prenez-moi mesure, je veux les volants amples.	Hor zare ; izaria hartdiezadazut ; nahi dut guerria hertsi, hegalac zabal.
R. et D. Avez-vous assez d'étoffe ?	Othe duzu gueric aski ?
R. Oui, et du surplus.	Bai, eta goitia ere.
D. Avez-vous quelque autre chose à faire ?	Bertce cerbait gauza eguiteco baduzu ?
R. Voici un mouchoir déchiré ; voilà un corsage usé ; faitez-y quelques points.	Huna mocones bat urratua ; horra yipoi bat higatua, eguiozute zombait phondu.

—

45me Dialogue.	**XLV Bitarteco Solasa.**
Idem. A un cordonnier.	*Orobat. Zapataguin bati.*

—

D. Avez-vous des souliers tout faits à vendre ?	Baduzu zapeta eguinic saltceco ?
R. Non ; mais je vous en ferai une paire tout de suite.	Ez ; bainan, pare bat berehala eguinen dautzut.
D. Prenez-moi mesure.	Izaria hart diezadazut.
R. et D. Comment les voulez-vous et pour quand ?	Nolacoac nahi ditutzu, eta noizco ?
R. Il me les faut très-forts et le plus tôt possible.	Arras gothorrac behar ditut eta ahalic lasterrena.
D. Vous les aurez ainsi.	Hala izanen ditutzu.
R. Les derniers que vous m'avez faits étaient mal cousus, ils avaient le talon trop bas et le cuir mauvais ; ils ont éclaté au bout de huit jours.	Azkenic eguin daitatzunac gaizki yosiac ciren, takoina aphalegui zuten eta larru tzarra ; zortci egunen buruco zapart-eguin dute.

D. Tel prix, tel ouvrage; j'emploierai, cette fois, du bon cuir; je leur ferai les talons hauts et je les coudrai bien; mais vous les payerez dix francs.	Nolaco precioa, halaco lana; aldi huntan larru onetic emanen diotet; eguinen dioztet takoinac gora eta yosico ditut ongui; bainan hamar libera pagatuco ditutzu.
R. Qu'importe le prix, pourvu qu'ils soient bons; il me les faut absolument pour dimanche.	Cerbait munta du precioac, baldin onac badire; baitezbada igandeco behar ditut.
D. Les voulez-vous un peu serrés ? la pointe ronde ou effilée ?	Hertchizco nahi ditutzu ? punta biribil, ala chorroch ?
R. Faites-les moi de manière à y entrer le pied à l'aise, et la pointe ronde, car j'ai des cors aux doigts.	Eguidaitzut zangoa errechki sartceco guisan eta punta biribil, ecen khatchoac baditut erhietan.
D. Je les ferai avec soin; vous n'aurez rien à redire.	Arthazki eguinen ditut; ez duzu berriz deus erraitecoric izanen.
R. Vous voilà ?	Hor zare ?
D. Oui, me voici; je viens vous apporter les souliers; voudriez-vous les chausser pour voir s'ils vous vont bien ?	Bai, huna ni; zure zapeten ekhartcera heldu nauzu; yauntzi nahi cintuzke ikhusteco eta ongui yoaten zaizkitzun ?
R. Ils paraissent bien faits.	Iduriz ongui eguinac dire.
D. Tenez la corne; asseyez-vous.	Ori adarra; yart-zaite.
R. Le pied entre difficilement.	Zangoa nekhez sartcen da.
D. N'ayez pas peur; tapez fort du pied.	Ez beldurric izan; yoazu sendoki zangoz.
R. Ils sont un peu trop longs ?	Lucechegui dire.
D. On les fait ainsi maintenant.	Horrela eguiten dituzte orai.

R. Ils sont aussi un peu étroits?	Hertchizco ere dire?
D. Ils s'élargiront en marchant.	Ibiliz largatuco dire.
R. Voilà votre payement.	Horra zure saria.

—

46me Dialogue.	**XLVI Bitarteco Solasa.**
Idem. A une blanchisseuse.	*Orobat. Bokheta eguile bati.*
D. Vous m'apportez mon linge?	Nere linya ekhartcen dautazu?
R. Oui, madame, voici la note.	Bai, andre, huna khondua.
D. Voyons si tout y est?	Ikhus eia oro hor diren?
R. Deux paires de draps de lit.	Bi ohe aldagarri,—mihise.
Quinze chemises (d'hommes).	Hamabortz athorra.
Dix chemises (de femmes).	Hamar manthar.
Six langes.	Sei chathar.
Deux caleçons.	Bi galtchoin.
Deux gilets.	Bi barneco.
Trois vestes.	Hirur gaineco.
Quatre jupons.	Laur zai-azpico.
Une robe.	Arroba bat,—soin bat, — zai bat.
Huit paires de bas.	Zortci galtcerdi pare.
Une paire de gants.	Escularru pare bat.
Deux pantalons blancs.	Bi galtza churi pare.
Neuf cravates.	Bederatci lephoco.
Onze mouchoirs.	Hamabi mocones.
Quatorze serviettes.	Hamalaur mahain-aincineco, — cerbita.
Trois nappes.	Hirur dafaila.
Sept essuie-mains.	Zazpi escu-chukatceco.

Dix-huit torchons.	Heme-zortci thurchun.
Vingt chiffons.	Hogoi philtzar.
Voilà tout.	Hori da gucia.
D. Il me semble que cette chemise n'est pas à moi.	Iduritcen zaut athorra hau ez dela nerea.
R. Pardon, madame, elle porte votre marque.	Barkhatu, andre, zure seinalea dakharke.
D. Ceci n'est pas bien blanchi.	Ez da hau ongui churitua.
R. J'ai fait tout mon possible.	Ahal guciac eguin ditut.
D. Cela est bien abîmé.	Hori ongui phorocatua da.
R. Or donc, je l'ai manipulé avec bien de soin.	Alta bada ongui arthoski escuetan ibili dut.
D. Voici un mouchoir déchiré.	Huna mocones bat urratua.
R. Il était on ne peut plus fragile.	Ecin guehiago uzterra cen.
D. Voilà des taches sur cette nappe.	Horra thona batzu dafaila hortan.
R. Je l'ai mise deux fois à la lessive, et je n'ai pas pu les enlever.	Bietan bokhetan ezarri dut, eta ecin khendu ditut.
D. Prenez le linge sale; savonnez-le bien.	Linya cikhina hartzazu; salboina zazu ongui.
R. et D. Quand faudra-t-il le rapporter ?	Noiz beharco da itzuli ?
R. Samedi matin, sans faute.	Larumbate goicean, faltaric gabe.
D. Voulez-vous être payée à présent ?	Nahi zare orai pagatua izan ?
R. Non, madame, je préfère toucher l'argent tous les trois mois; votre servante.	Ez, andre, nahigo dut dirua altchatu hirur hilabetetaric; zure nescato.

— —

47me Dialogue.	XLVII Bitarteco Solasa
Idem. A un ouvrier agricole.	*Orobat. Languile nekhatzaile bati.*
D. Holà hé! ouvrier, où êtes-vous?	Hola hé! languilea, non zare?
R. Ma foi! je me reposais.	Ala fedé! phausan nindagon.
D. Il paraît, puisque vous étiez étendu sur le gazon, derrière la haie.	Badu iduri, sorropilan, berro guibelean, etzana cinaudenaz gueroztic.
R. J'étais bien fatigué.	Ongui nekhatua nintcen.
D. Et le travail?	Eta lana?
R. J'ai beaucoup travaillé jusqu'à présent.	Orai-dino hainitz lanean aritu naiz.
D. Qu'avez-vous fait ce matin?	Goiz huntan cer eguin duzu?
R. J'ai pioché ce carreau; j'ai tondu cette haie; j'ai taillé cette vigne; j'ai greffé cet arbre.	Alhur hau aitzurtu dut; berro hori murriztu; mahasti hura phicatu; arbola hori charthatu.
D. Vous avez fait de l'ouvrage. Aurons-nous des raisins cette année?	Eguin duzu lan. Izanen othe dugu mahatsic aurthen?
R. Il y en aura un peu s'il n'y a pas d'oïdium.	Aphur bat izanen da baldin gaitzic ez bada.
D. La terre est-elle bien propre à recevoir la semence?	Lurrac trempu on du haciaren errecebitceco?
R. Oui, si le beau temps continue.	Bai, baldin dembora onac irauten badu.
D. Le temps est donc propice pour les semailles?	Aro ona da, beraz ereguintcen eguiteco?
R. A souhait; désormais, on pourra, quand on le voudra, semer le froment, le maïs.	Nahi bezalacoa; hementic aincina, noiz nahi, oguia, arthoa ereguint-daiteke

D. L'année s'annonce bien.

Urtheac itchura ona du.

R. Oui ; les arbres aussi sont en pleine floraison : ils seront chargés de fruits ; il y en aura abondamment.

Bai ; arbolac ere lore bethean dire ; fruituz leher eguinen dute ; izanen da nazaiki.

D. Les jardins ne sont pas moins garnis.

Baratceac ez dire gutiago betheac.

R. Il n'y manque rien : choux, carottes, poireaux, petits pois, tomates, piments, tout y a bien pris.

Ez da han deusen ere escasic ; aza, phaztenagre, phorru, ilhar-chehe, tomate, bipher, guciec ongui hartu dute.

D. Il est temps que vous buviez un coup de vin ; je suis venu pour cela.

Ordu da arno colpe bat edan-dezazun ; hortarat ethorri naiz.

R. Soyez le bienvenu ; vive vous !

Ongui ethorri zarela ; biba zu !

D. Buvez à ma santé, et puis vous allumerez votre pipe.

Edan-zazu nere osagarriari eta guero zure pipa phiztuco duzu.

R. A tantôt.

Sarri-dino.

—

48me Dialogue. — **XLVIII Bitart. Solasa.**

Idem. A un perruquier. — *Orobat. Bizar-phicatzaile bati.*

—

D. Allez chercher mon barbier, et dites-lui que je commence à m'inquiéter.

Nere bizar-phicatzailearen bilha zohaci ; eta errocozu khechatcen hasten naicela.

R. Monsieur, il arrive ; le voici.

Yauna, heldu da ; huna non den.

D. Comme vous venez tard aujourd'hui ; vous m'obligerez à en prendre un autre.

Zoin berant heldu zaren egun ; bortchatuco nauzu bertce baten hartcera.

R. Je vous demande pardon, il m'était impossible de venir plus tôt.	Barkhamendu eske nautzu ; ecin ethor ahal nintakeien lehenago.
D. Vous savez que j'aime à me faire raser de bon matin ; n'y manquez pas une autre fois.	Badakizu goiz gocetic maite dutala bizarraren phica-araztea ; bertce aldi batez ez hutsic eguin.
R. Des époux m'ont fait retarder aujourd'hui ; cela ne m'arrive pas souvent ; je suis venu en courant, après les avoir congédiés.	Espos batsuec berant-araci naute egun ; ez zait hori maiz guerthatcen ; lasterca ethorri naiz hec despeitu ondoan.
D. Vous avez toujours quelques prétextes, allons vite.	Bethi cerbait estacuru baduzu ; hots fite.
R. De suite ; l'eau est-elle chaude ?	Berehala ; ura bero othe da ?
D. Vos rasoirs sont-ils bons et propres ? essuyez-les et repassez-les.	Zure nabalac onac direa eta garbiac ? chuca zaitzu eta chorrocht.
R. Oui, monsieur.	Bai, yauna.
D. Prenez garde de me couper ; faites bien attention.	Beguira ni phica ; eguizu ongui khasu.
R. Vous fais-je du mal ?	Min eguiten darautzuta ?
D. Je crains que vous ne m'ayez coupé ; je saigne.	Beldur naiz phicatu othe nauzun ; odola dariot.
R. Pardon, monsieur ; c'est un petit bouton qui a sauté.	Barkhatu, yauna, potoingno bat da yautci dena.
D. Que m'apportez-vous de nouveau ? vous êtes tous des nouvellistes, vous autres.	Cer berri ekhartcen dautazu ? berriketariac zarete guciac, zuec.
R. Ne parlez pas trop, monsieur, vous risquez de vous faire du mal ; il n'y a rien de bien nouveau.	Ez sobera mintza, yauna, min-hartcea hirriscatcen duzu ; ez da deus berriagoric.

D. Est-ce fini? peignez-moi maintenant les cheveux.	Akhabo dea? orrazta dietzadazut orai biloac.
R. Vous les avez tout crêpus.	Osoki khuscuillatuac ditutzu.
D. Ils ne sont que plus jolis.	Pullitago baicic ez dire.
R. et D. Regardez à la glace; est-ce bien?	Miraillari beha zozu; ongui dea?
R. C'est parfait.	Arras ongui da.
D. Quand faut-il que je revienne?	Noiz behar naiz berriz itzuli.
R. Venez après-demain.	Etci zato.
D. A quelle heure?	Cer ordutan?
R. A huit heures au plus tard.	Berantenic zortci orenetan.

—

49me Dialogue. — **XLIX Bitarteco Solasa**

Idem. A un garçon, à une fille, qui veut se placer quelque part en qualité de domestique.	*Orobat. Sehi guisa nombait pharatu nahi den muthil, nescatcha bati.*
D. Je suis en quête d'une place.	Lekhu baten bilha nabila.
R. et D. Quelle sorte de place désirez-vous?	Cer lekhu guisa guticiatcen duzu?
R. Quelconque; cocher, jardinier, portier, valet de chambre, vacher, pasteur, je suis bon à tout.	Edo zoin; carro-zain, baratce-zain, guelari, behi-zain, arzain, orotaco on naiz.
D. Ce n'est pas peu.	Ez da guti.
R. Je sais aussi un peu écrire et compter.	Iskiriatcen ere eta khondatcen aphur bat badakit.
D. Pas autre chose?	Deus ez bertceric?
R. Je m'entends aussi à soigner les chevaux et autres bêtes; à cultiver	Aditcen naiz ere zaldien eta bertce aberen arthatcen; loren lant-

les fleurs ; enfin, au besoin, je saurais servir à table.	cen ; azkenean, behar orduan, mahai cerbitzatzen badakiket.
D. Je voudrais me placer quelque part cuisinière, — femme de chambre, — bonne d'enfants.	Nahi ninteke nombait paratu, coiciner, — guelari, — haur- zain.
R. et D. Que savez-vous faire ?	Certan dakizu ?
R. Un peu de tout.	Orotaric aphur bat.
D. Savez-vous coudre, repasser, faire des reprises et des points ?	Badakizu yosten, lisatcen, phaseguen eta phonduen eguiten ?
R. Oui ; je sais faire tout cela.	Bai ; badakit horien gucien eguiten.
D. Etes-vous déjà restée quelque part domestique ?	Yadanic nombait sehi egona zare ?
R. Je suis restée deux ans dans une ville et trois dans une autre, dans de bonnes maisons.	Egon naiz bi urthe hiri batean eta hirur bertce batean, etche on batzuetan.
D. Avez-vous des certificats de bonne vie ?	Baduzu bicitce oneco paperic ?
R. J'en ai des meilleurs.	Hoberenetaric baditut.
D. Quel âge avez-vous ?	Cer adin duzu ?
R. J'ai trente ans.	Hogoi eta hamar urthe ditut.
D. Savez-vous parler en basque,— en français ?	Badakizu escuaraz, — frantsesez mintzatcen ?
R. Un petit peu ; je les comprends mieux.	Aphurtto bat ; hobekiago endelgatcen ditut.
D. Quels gages demandez-vous ?	Cer soldatac galdatcen ditutzu ?
R. et D. Que voulez-vous me donner ?	Cer eman nahi dautazu ?
R. et D Dix francs par mois, et en outre, la nourriture et le blanchissage. Cela vous suffit-il ?	Hamar libera hilabeteco eta bertzalde, hazcurria eta churitasuna. Bazautzu hori aski ?

R. Cela me suffit. — Hori bazaut aski.

D. Eh bien ! je vous prends chez moi ; mais je dois vous dire d'avance que je n'aime pas les rapporteurs ; et que j'entends que vous soyez réservée dans vos paroles et silencieuse sur les choses du dedans comme sur celles du dehors. — Eta bada, nere etchean hartcen zaitut ; bainan aincinetic errau behar dautzut salhatariac ez ditudala maite eta aditcen dutala erresalbatua izan zaiten zure solasetan bai eta ichila barneco nola campoco gaucetan.

R. et D. Soyez tranquille sur ce point ; quand voulez-vous que je vienne définitivement ? — Phondu hortan zaude descantsu ; noiz nahi duzu alderat ethor nadien ?

R. Dès demain. — Bihar danic.

—

50me Dialogue. — L Bitarteco Solasa.

Idem. A un médecin, à un chirurgien — *Orobat. Medicu, barber bati.*

D. Appelez au plus tôt le médecin. — Deit-zazu ahalic lasterrena medicua.

R. Tout de suite....le voilà qui arrive. — Berehala.... horra non ethortcen den.

D. Faites-le entrer. — Sar-araz-zazu.

R. Me voici. — Huna ni.

D. Soyez le bienvenu. — Ongui ethorri.

R. et D. Qu'avez-vous ? — Cer duzu ?

R. Je suis très-malade et je ne sais pas trop ce que j'ai. — Arras eria naiz eta ez dakit sobera cer dutan.

D. Vous ne devez pas avoir grand mal, puisque vous ne savez pas ce que vous avez ; depuis quand êtes-vous alité ? — Ez duzu min handiric izan behar, ez dakizunaz gueroz cer duzun ; noizdanic ohatua zare ?

R. J'étais encore debout hier ; le mal m'a pris tout à coup. — Atzo oraino tchutic nindagon ; gaitzac betbetan hartu nau.

D. Voyons ; d'où vous plaignez-vous le plus ?

Ikhus ; nontic, guehienic, arrangurâtcen zare ?

R. De la tête, — des poumons, — du ventre ; je souffre un peu de partout.

Burutic, — bulharretaric, — sabeletic ; orotaric aphur bat sofritcen dut.

D. Ne vous effrayez pas ; cela n'est rien ; voyons le pouls ; montrez-moi la langue.

Ez ici ; ez da hori deus ; ikhus pholtsua ; erakhus diezadazut mihia.

R. Le pouls est un peu agité ; la langue un peu épaisse ; le sang un peu échauffé ; vous avez un peu de fièvre.

Pholtsua nahasiche da ; mihia lodiche ; odola berotuche ; sukhar aphurtto bat baduzu.

D. Qu'avez-vous fait ces derniers jours ? Avez-vous commis quelque excès ? comment ce mal vous est-il arrivé ?

Cer eguin duzu azkhen egun horietan ? Cerbaitetan soberanioric eguin othe duzu ? nola ethorri zautzu gaitz hori ?

R. J'ai beaucoup mangé avant-hier ; j'ai sué, et puis je me suis refroidi ; à la suite de cela, j'ai eu des frissons.

Hainitz yan dut herenegun ; ieertu naiz eta guero hostu ; hartaric seguidan, hotz ikharac izan ditut.

D. C'est une sueur rentrée, ou peut-être un coup de sang.

Icerdi sartu bat da hori, edo behar-bada odol colpe bat.

R. C'est possible. Atch ! aïe !

Baditake. Atch ! aï !

D. Une petite saignée vous fera du bien ; ce soir vous prendrez un bain de pieds, et puis nous verrons.

Sangre ttipi batec on eguinen dautzu ; gaur, mainhu bat hartuco duzu eta guero ikhusico dugu.

R. et D. Faites tout ce qu'il faut pour me guérir ; pourrai-je prendre quelque chose ?

Eguizu behar den gucia ene sendatceco ; hartdezaketa cerbait ?

R. Rien que de la tisane

Deus, ur egosia baicen,

aujourd'hui ; demain, vous prendrez un peu de bouillon, — un peu de volaille, — un peu de veau ou quelques pruneaux.

egun ; bihar, hartuco duzu salda chorta bat,— oillaki gutitto bat, — aratcheki puchca bat edo cembait adan melatu.

D. Sapristi ! comment vivre ainsi. Pourrai-je me lever ?

Crebius ! horrela nola bici. Yeiki naiteke ?

R. Non ; vous devez rester au lit et chaudement encore.

Ez ; ohean egon behar zare eta beroki halere.

D. Je m'en vais voir d'autres malades ; bonjour, à demain.

Banoha bertce eri batzuen ikhustera ; egun on, bihar dino.

R. On vous accompagnera jusqu'en bas ; lavez vos mains avant de sortir.

Béherat-dino lagunduco zaituzte, zure escuac garbitz-kitzu yalgui baino lehen.

D. Que dites-vous, monsieur, de notre malade ?

Cer diozu, yauna, gure eriaz ?

R. Il n'y a rien de dangereux, mais laissez-le bien tranquille ; fermez les volets de sa chambre ; ne faites pas de bruit ; ne lui donnez rien à manger ; tenez-lui les pieds chaudement ; je reviendrai demain matin.

Ez da deus lanyeric ; bainan, utz-zazue descantsu onean ; cerrazaitzue guelaco leihoac ; ez harrabosic eguin ; ez deus eman yatera ; atchic-oitzue zangoac beroki ; bihar goicean itzulico naiz.

D. Avez-vous dormi ?

Loric eguin duzu ?

R. Pas du tout, ou très-peu ; je suis tout en sueur, tout en feu ; j'ai éprouvé, de temps en temps, des vertiges et j'ai cru mourir ; il me venait un voile devant les yeux.

Batere ; edo arras guti ; dena icerditan nago ; dena sutan ; noicetic noicera, ukhan ditut burtzora batzu zoinetan hil uste izan baitut ; heldu zaitan bela bat beguien aincinerat.

D. Il faudra prendre un

Laamendu bat hartu

lavement ce matin, et ce soir une purge ; cela passera, ne vous découragez pas pour si peu.

beharco duzu goiz huntan eta gaur purga bat ; iraganen da hori, ez koraya gal, hain gutitzat.

R. Vous m'abandonnez à présent de cette manière ?

Orai uzten nauzu guisa huntan ?

D. Pas encore ; vous m'enverrez tantôt quelqu'un pour me donner de vos nouvelles.

Orainic ez ; sarri norbait igorrico dautazu zure berriekilan.

R. Bonsoir, monsieur, je viens vous porter des nouvelles de notre malade !

Gau on, yauna, yiten nautzu gure eriaren berriekilan.

D. Eh bien, comment va-t-il ?

Eta bada ! nola doha ?

R. Il n'est pas plus mal, il a passé une bonne journée.

Ez da gaizkiago, egun on bat iragan du.

D. Je savais que cela ne serait rien ; puisqu'il va mieux, je puis cesser de venir.

Banakien ez cela hori deus izanen, ongui dohanaz gueroztic, yitetic bara ninteke.

R. S'il lui arrivait quelque chose de plus fâcheux, nous viendrions vous prévenir.

Deus gaichtoagoric guerthatcen balitzaio, zure abisatcera ethor guintezke.

D. C'est bien, cela suffit.

Ongui da, aski da.

R. Nous vous rémunérerons quand il sera tout à fait guéri.

Saristatuco zaitugu osoki sendatu denean.

QUATRIÈME PARTIE.

—

Sujets et Modèles de billets et de lettres.

—

1°

L. B. D'INVITATION.

—

A Dîner.

—

Monsieur, Madame,

Je viens vous prier de vouloir venir dîner chez moi, à midi précis, dimanche prochain, jour de notre fête locale Vous me ferez beaucoup de plaisir en acceptant mon invitation.

—

Invitation à Souper.

—

Monsieur, Madame,

J'ai besoin de vous voir ce soir, veuillez donc venir, vers huit heures, souper chez moi.

Votre serviteur.

—

Invitation à Déjeuner.

—

Monsieur,

Vos affaires vous permettraient-elles de venir déjeuner avec nous lundi prochain, à dix neures ?

LAUGARREN PHARTEA.

—

Billet eta letra, edo izkirioz, mezu eguiteco guede eta moldeac.

—

1°

L. B. GOMITATCECO.

—

Bazcaritera.

—

Yauna, Andre,

Heldu naiz zure othoiztera ethor zaiten, neure etchera , bazcaritera , eguardico chuchen helduden igandean , gure herrico besta egunean. Atseguin handia eguinen dautazu, neure gomitua onhetsiz.

—

Gomitua Afaritera.

—

Yauna, Andre,

Gaur, zu ikhusteco beharretan naiz, zato beraz othoi , zortci orenetan, neure etchera afaritera.

Zure cerbitzari.

—

Gomitua Hascaritera.

—

Yauna,

Zuie eguitecoac utz othe citzakete, helduden astelehenean, hamar orenetan gurekin hascari-

Nous aurions plaisir de vous procurer la connaissance d'un parent, — d'un ami qui vient de nous arriver. Agréez nos sentiments affectueux.

tera? Atseguin guinuke ethorri berri-zaucun ahai de, — adichkide baten zuri ezagut-araztea. Agrada bekitzu gure amodiozco sentimenduac.

—

Invitation à goûter.

Gomitua arrats-aldeco hascarira.

—

Mon cher ami,

Je désire passer avec toi une après-midi ; fais-moi le plaisir de venir chez moi jeudi ; j'aurai à t'offrir du vin blanc, du rouge du meilleur crû ; nous ferons la petite partie ensemble.

Ton cher ami.

Ene adichkide maitea,

Arrats-alde bat hirekin iragan nahiz nagoc ; eguin zadatac atseguina neure etchera yiteco ortcegunean ; izanen diat arno bai churitic, bai gorritic, hoberenetic, hiri eskheintceco.

Hire adichkide ona.

—

Invitation à une réunion.

Gomitu bilkura batetara.

—

Ma chère sœur,

Sois assez bonne pour venir, demain, passer la soirée avec nous ; nous attendons quelques personnes qui seraient très-heureuses de faire connaissance avec toi.

Ta chère sœur.

Ene ahizpa maitea,

Izan hadi aski on, yiteco, bihar, arratz-aphala gurekilan iragatera ; iguritcen ditigun yende batzu, atseguin luketenac hirekilan ezagutza eguitea.

Hire ahizpa maitea.

—

RÉPONSES A L'INVITATION

ERREPOSTUAC GOMITUARI.

—

Acceptation.

Baia.

—

Monsieur, Madame,

Nous vous remercions bien de votre bonne invi-

Yauna, Andre,

Eskher hainitz zure gomitu onaz ; lehiaz eta

tation ; nous y répondrons avec empressement et joie. Sans adieu, à dimanche.

eta bocie ihardetsiren diogu. Ez adioric, igande arte-dino.

—

IDEM.

—

Monsieur,

Veuillez agréer mes respectueux remerciements ; j'aurai l'honneur de répondre à l'invitation que vous avez daigné me faire.

A ce soir.

—

OROBAT.

—

Yauna,

Onhets zaitzu nere eskher on errespetuz betheac, eguin nahi izan dautazun gomituari ihardesteco ohorea izanen dut.

Gaur dino.

—

REFUS.

—

Monsieur,

Mes affaires m'empêcheront de profiter de l'aimable invitation que vous m'avez faite pour lundi prochain ; ce sera une autre fois ; daignez agréer mes remerciements.

—

EZA.

—

Yauna,

Nere eguitecoec debecaturen naute baliatcea helduden asteleheneco, eguin dautazun gomitu maithagarriaz ; bertce aldi batez izanen da ; agrada bekitzu nere eskher onac.

—

IDEM.

—

Mon cher ami,

Un grand rhume m'a pris tout à coup, il me sera impossible de venir chez vous, jeudi prochain ; je craindrais d'aggraver mon mal ; mille remerciements. Je serai mieux une autre fois.

—

OROBAT.

—

Nere adichkide maitea,

Marrhanta handi batec betbetan hartu nau ; ecin bertce izanen zaut zure etchera ethortcea, helduden orcegunean ; beldur ninteke, nere mina gaichto dadien ; eskher mila bertce aldi batez hobekiago izanen naiz.

IDEM.

—

Ma chère sœur,

Le soin de mes enfants et les travaux du ménage réclament tous mes loisirs ; il m'est impossible de quitter demain ma maison pour venir passer un moment avec tes connaissances ; veuillez bien m'excuser ; merci beaucoup.

Ta chère sœur.

—

OROBAT.

—

Ene ahizpa maitea,

Neure haurren arthac eta barneco lanec ene asti guciac galdatcen ditzen ; ez cezakenat, bihar, utz neure etchea, hire ezagunetun memento beten iragaiteco ; eskherric aski.

Hire ahizpa maitea.

—

2° L. B. de Demande

—

De l'aumône ou du travail

Monsieur.

Pardonnez-moi si je viens vous exposer ma grande misère ; je me trouve dans un très-grand besoin ; je suis un pauvre père de famille ; je n'ai pas de pain à donner à mes enfants et je suis sans travail ; ayez pitié de moi, je vous prie ; la réputation de votre bon cœur m'a fait prendre l'audace de venir vous demander l'aumône ou du travail.

Je suis avec un profond respect, Monsieur, votre très-humble et très-obéissant serviteur.

2° L. B. Galdezcoac

—

Amoïnaz edo lanaz.

Yauna,

Barkha diezadazut neure escas handiaz pharte emaitera heldu banauzu ; behar handi handi batean kausitcen naiz ; aita familiaco gaicho bat naiz ; ez dut oguiric nere haurreri emaiteco eta lanic gabe nago urrical zakizkit, othoi ; zure bihotz onaren aïphamenac har-araci daut ausartcia zuri amoina edo lana galde-eguiteco.

Errespetu handi batekin nago, Yauna, zure cerbitzari guciz humila eta guciz yardetsia.

—

Idem. — D'une place.

Mon cher ami,

Sachant combien vous êtes bon et porté à rendre service, j'ose vous prier de vouloir bien me procurer une bonne place quelque part ; je vis dans l'oisiveté ; il n'y a rien à faire ici, et quand il y a du travail, on gagne peu ; honorez-moi, je vous prie, d'une réponse ; je vous remercie d'avance.

Or. — Lehhu batez.

Nere adichkide maitea,

Yakin zoin onazaren eta cerbitzu eguitera ekharria ausartatcen naiz zure othoitztera toki on bat nombait causi diezaduzun : esdeuskerian bici naiz ; ez da hemen deus eguitecoric eta lana denean ere, guti irabazten da ; ohora nezazu, othoi, errepostu batez ; aincinetic eskherrac bihurtcen daizkitzut.

Id. — D'un entretien.

Cher Monsieur,

J'aurais besoin de causer avec vous d'une affaire importante ; je vous prie de m'annoncer, au plus tôt, quand, quel jour et à quelle heure je pourrai vous trouver.

Jusqu'au plaisir de vous voir.

Or. — Mintz-aldi batez.

Yaun Maitea,

Eguiteco premiatsu batez arras mintzatu behar cintuzket ; othoïzten zaitut, ahalic lasterrena, adi-araz diezadazun, noiz, zoin egunez eta cer tenorez ikhus zaitzakedan. Zure ikhusteco atsegina dukedan artean.

Id. — D'un emprunt.

Cher ami,

Je vous prie, venez à mon secours ; je me trouve dans une triste situation ; je dois payer demain même une dette et je suis sans argent ;

Or. — Maïlegu, batez

Adichkide maitea,

Othoi arteca-tchar batean hel zaizkit ; aurkhitcen naiz ; bihar berean zor bat pagatu behar dut eta diruric gabe naiz ; aski ona cintazkea, ehun

seriez-vous assez bon de me prêter cent francs; je vous les remettrai à la fin de ce mois ; vous ne pourriez me rendre un plus grand service. Merci d'avance.

libera maileguz emaiteco ; hilabete hunen ondarrean itzulico daizkitzut ; cerbitzu handiagoric ez diezadakezut eguin. Eskerric aski aincinetic.

—

3° L. B.

—

De remerciements.

—

Monsieur,

J'ai reçu votre réponse qui me fait voir que je n'avais pas affaire à un ingrat ; je vous dois des actions de grâces pour les bontés que vous avez eues pour moi ; que vous rendrai-je pour tant de bienfaits ?

Recevez l'assurance de ma plus vive reconnaissance.

—

3° L. B.

—

Eskher onezcoac.

—

Yauna,

Errecebitu dut zure errepostua erakhusten dautana ez nuela eguitecoa eskhèr gaichtodun batekin ; eskherrac deraizkitzut neretzat izan ditutzun ontasunentzat. Cer bihurtuco derautzut hambat ongui eguinentzat ?

Errecebi-zazu nere ezagutza bicienaren segurantza.

—

AUTRE.

—

Madame,

On ne frappe jamais en vain à la porte de votre cœur ; il s'ouvre toujours à la voix de la prière ; vous venez d'en donner une nouvelle preuve en m'obtenant la faveur que je demandais ; je ne saurais comment assez vous en re-

—

BERTCE BAT.

—

Andre,

Ez da nihoiz ere alferretan yoiten zure bihotceco athea ; bethi idekitcen da othoitzaren bozaz ; frogantza berri bat emanic zaude galdatcen nuen fagorea ardietsiz ; ez nakike nola zuri eskerric aski bihur.

mercier.
Votre très-humble serviteur.

Zure cerbitzari guciz humila.

—

AUTRE.

—

Mon cher ami,
On reconnaît les véritables amis dans les occasions ; votre attachement pour moi ne m'a jamais paru aussi grand que cette fois ; vous vous êtes empressé de me secourir dans un grand besoin ; je ne saurais désormais faire assez pour vous ; comptez donc toujours sur moi.
Votre meilleur ami pour toujours.

—

BERTCE BAT.

—

Nere adichkide maitea,
Adichkide onac ezagutcen dire behar orduetan ; neretzat, duzun estecamendua, ez zait iduri, nihoiz ere, izan dela hoin handi nola aldi huntan ; behar handi batean lehiatu zare nere socorritcera ; ez nakike, oraidanic, cer aski eguin zuretzat ; khonda-zazu beraz bethi nere gainean.
Zure adichkideric hoberena bethicotz.

—

4° L. B.

Du premier de l'an à un bienfaiteur.

—

Monsieur, madame,
Je manquerais à la reconnaissance que je vous dois, si je ne me souvenais de vous, à ce renouvellement d'année ; ma première pensée, ce matin, a été pour vous ; laissez-moi vous renouveler les vœux que mon cœur a déjà faits pour vous devant Dieu. Bonjour et bonne année ; que

—

4° L. B.

Urthatsetaco ongui eguile bati.

—

Yauna, andre,
Zor dautzutan ezagutzari huts eguin nezake, ez banintz, urthe berri huntan, zutaz orhoitcen ; nere lehen gogoeta, goiz huntan, zuretzat izan da. Utz-nezazu, nere bihotzac, yadanic, Yaincoaren, aincinean, zuretzat eguin dituen botuen zuri berritcera ; egun on eta urthe on ; urthe hau,

cette année soit meilleure pour vous que les précédentes ; que la paix, la tranquillité et la santé vous accompagnent, en cette vie, et que le bonheur éternel soit la récompense de vos vertus, dans l'autre.

aincinecoac baino, hobeago izan bedi zuretzat; bakeac, descantsuac eta osasunac lagunt-zaitzatela, bicitce huntan, eta bethiereco zoriona izan dadiela zure berthuten saria, bertcean.

—

Id. — A un ami

—

Mon cher ami,

Les années, en se renouvelant, ne font que resserrer davantage les liens de notre amitié ; si le ciel a écouté ma prière, l'année qui commence sera toute bonne pour vous ; car je lui ai demandé, pour mon meilleur ami, la santé, la tranquillité et la paix, qui sont les véritables biens de ce monde, et pour les deux, l'union la plus étroite pour cette vie et pour l'autre.

—

Or. — Adichkide bati.

—

Nere adichkide maitea,

Urtheec, berritcean, ez dituzte gure adichkidantzaren lokharriac guehiago baicic tincatcen ; ceruac aditu badu nere othoitza, hastera dohan urthea zuretzat guciz ona izanen da ; ecen galdeguin daizcot, nere adichkide hoberenarentzat, osasuna, descantsua eta bakea, zoinac baitire mundu huntaco onthasun eguiazcoac, eta bientzat, batasunic hertsiena bicitce huntaco eta bertceco.

—

Id. — A ses Parents.

—

Mes chers parents,

Si mon bon ange a déposé aux pieds du Très Haut les prières que je lui ai adressées pour vous ce matin, je ne doute pas que cette

—

Or. — Bere Burhasoeri.

—

Nere burhaso maiteac,

Nere aingueru onac ezarri baditu Yaungoicoaren oinetan zuentzat, goiz huntan eguin diot zodan othoitzac, ez dut dudaric urthe berri hau

nouvelle année ne soit des meilleures pour vous; tout ce que l'amour le plus vif peut inspirer à un enfant reconnaissant, je l'ai demandé pour vous. La paix, la tranquillité, la santé, une longue vie, enfin le ciel : voilà les biens que je vous ai souhaités en commençant cette année ; voilà mes vœux, voici mes étrennes : la sagesse, l'amour du travail, le désir de correspondre à vos bontés et de vous seconder un jour : reconnaissez-vous là la mesure de l'amour de votre enfant chéri pour vous ?

Je vous embrasse avec tendresse.

ez dadien zuentzat izan herberenetaric ; amodioric bicienac gogorat eman ditzazkeienac oro haur eskherdun bati, zuentzat galdatu ditut. Bakea, descantsua, osasuna, bicitce luce bat, azkenic cerua ; horra zueri desiratu ditudan onthasunac urthe haste huntan ; horra nere botuac, huna nere estreïnac : prestutasuna, laneco amodioa, zuen ontasunari iherdesteco eta egun batez zueñ laguntceco guticia. Ezagutcen othe duzue hortan zuen haur maitearen zuen ganaco amodioaren izaria ?

Amulxuki besarkatcen zaituztet.

—

5° L. B.

De félicitation pour une nomination.

—

Monsieur,

J'ai appris, hier au soir, avec un bien grand plaisir, le bonheur que vous avez eu ; je m'en réjouis avec vous ; car tout ce qui vous concerne me tonche vivement, depuis les plus petites choses jusqu'aux plus

5° L. B.

Atseguin zorionetan icendacione batentzat.

—

Yauna,

Barda yakin dut atseguin handirekin ukhan duzun zoriona ; aleguerateen naiz zurekin ; ecen, zuri darraizcoten gauza guciec biciki bunkitcen naute, ttipieneric handienetaradino, onean nola gaichtoan ; ardietsi

grandes, dans le bien comme dans le mal. La bonne place que vous avez obtenue n'est que la juste récompense de vos mérites.

duzun leku ona ez da zure merecimenduen sari zucena baicen.

—

Id. — Pour un héritage.

Or. — Primantzat batentzat.

—

Mon cher ami,

J'apprends à l'instant même qu'il vous est échu un grand héritage ; c'est une bonne nouvelle qui me réjouit autant que vous ; il ne pouvait vous arriver rien de plus heureux ; je vous en fais mon sincère compliment.

Nere adichkide maitea,

Orai berean yakiten dut primantza handi bat erori zautzula ; horri da berri on bat zu becembat bozcariatcen nauena ; ez litzakezuken guertha deus zorion handiagoric ; hortaz eguiten dautzut complimendu eguiazco bat.

—

Id. — Pour un mariage ou la naissance d'un enfant.

Or. — Ezkontza edo haur sortce batentzat.

—

Monsieur, madame,

C'est avec bien grand plaisir que j'ai reçu la nouvelle du mariage de votre fils, — de la naissance de votre enfant.

Je me joins à vous pour rendre grâces à Dieu de cet heureux événement ; vos amis ne sauraient trop prendre part à cette reconnaissance ; je prie Dieu qu'il bénisse tou-

Yauna, andre,

Atseguin handirekin ukhan dut zure semearen ezkontceco, — zure haurraren sortceco berria.

Zuri yuntatcen naiz zorionezco guerthacari hoitaz Yaincoari eskherren bihurtceco ; zure adichkidec ez lakikete sobera pharte har ezagutza hortan ; Yaincoari othoitz eguiten diot bethi hor-

jours ainsi votre famille comme elle le mérite.

rela zure familia benedica dezan mereci duen bezala.

6° L. B.

6° L. B.

De condoléance dans toutes sortes d'afflictions

Gucrthacari gaichtoetan atsekabe suerte gucietan.

Monsieur,

Quelle perte, grand Dieu! Comme votre vertu est éprouvée: vous avez joui, jusqu'à présent, de tous les avantages de la vie: biens, honneurs, plaisirs, rien ne manquait à votre bonheur; pourquoi fallait-il qu'un nuage vînt subitement obscurcir une vie si douce et si exempte d'afflictions?

Croyez que je prends une grande part à vos douleurs; plaise à Dieu que l'assurance de mon amitié les adoucisse un peu.

Yauna,

Cer galcea, Yainco handia! Zure berthutea nola den frogantua! Orai artean, bicitce huntaco abantail guciez gozatu zare; onthasun, ohore, atseguin; deusen escasic ez zuen zure zorionac; cergatic hedoi batec behar zuen ethorri betbetan hoin bicitce gozo eta atsecaberic gabeco baten goibeltcera?

Sinhets-azu zure oinacetan pharte handi bat hartcen dutala; aguian Yaincoac nahico du nere adichkidantzaren segurantzac eztiditzan aphur bat.

Id. — A la mort d'un époux.

Or. — Espos baten heriotcean.

Madame,

Comment pouvoir vous consoler dans le désespoir où je vous vois; je ne puis vous adresser d'autre paroles que celles

Andre,

Nola zu contsola ahal ikhusten zaitudan etsimenduan; ez dezakezut bertce solasic erran Yaincoac gogorat emai-

